



Barrikako Udalak eta Aldundiak ordaindu egin beharko dute kalte-ordaina: 1,5 milioi euro. ▶9



Antzerki Eguenak: euskarazko antzezlanek gozatzeko aukera, hilean behin, Erandion. ▶14

hiruka

Uribe Kostako astekaria



81. zenbakia

2017ko
urtarrilaren 19tik
urtarrilaren 25era arte

«Pentsatzen dudana bezala abestu nahi dut»

Jone Uria Albizurik
egundoko postua lortu zuen Bizkaiko Bertsolari Txapelketan, pasa den abenduan. ▶16-17



SAKONEAN GETXO

Parkinga, ezbaian

Ibarbengoako metro-geltokiak sei urte daroatza itxita; dirudienek, ondoan dagoen Tosu landan aparkalekua noiz eraiki zain. Laster hasiko dira horren obrak. Proiektuaren kontrako zein aldeko ahotsak asko dira gurean. Kontrakoek kanpaldia abiatu dute. ▶22-23

KULTURA LEIOA

Kultur Leioako egitarau berria

Leioako Udaleko Kultura Sailak urtarriletik ekainera bitarteko agenda aurkeztu du: 22 ikuskizun egongo dira, guztira. ▶11

HERRIZ HERRI ZENBAIT HERRI

Aurrekontuak, onartuta

Erandio, Leioa eta Sopolako udalek eta Mankomunitateak 2017ko aurrekontuak onartu dituzte daborduko. ▶5/6/7/10

Getxoko erdigunea irisgarriago izateko proiektua martxan ipiniko dute laster, zazpi milioi euroko inbertsioagaz. ▶2

Heriotza eragin duen lan-istripua salatu dute Sopelan dozenaka lagunek; hildako behargin gaztea bertokoa zen. ▶7

Berangoko Simon Otxandategi taldeak Gartxot Egunean parte hartuko du aste-akabu honetan, Itzaltzun. ▶8

Euskara Agendak urtebete egingo du laster; gozatzeko aukera asko egongo dira egunotan Gorlizen eta Plentzian. ▶10

Algortako erdigunea eraldatzeko proiektua

Kaleen irisgarritasuna hobetuko dute, Euskal Herria kaleko tarte bat oinezkoentzat moldatu eta parking bat egingo dute.

Algortan Irisgarritasuna, Trafikoa eta Aparkatzeko arazoa Hobetzeko Proiektua gauzatu du Udalak, legegintzaldi honetan. Proiektuan honako hauek jaso ditu: Algortako Etorbidea eta Mariandresena kaleen irisgarritasuna hobetzea; Euskal Herria kaleko tarte bat (Mariandresena eta Amezti artekoa) oinezkoentzako egitea; eta lurrazpiko aparkaleku bat eraikitzea, Manuel Gainza parkean, 243 leku izango dituen. Lan horien aurrekontua 7.000.000 eurokoa da, denera.

Proiektuan Udalak aurrekusi duenez, oinezkoentzako ibilbideak handitu egingo dira; 4.800 metro koadroko azalera edukiko dute, denera; gaur egun, 3.150 metro koadro daude. Bi-



info+: hiruka.eus/getxo

deen azalera, berriz, murriztu egingo da: gaur egungo 4.775 metro koadroetatik 3.125 metro koadrorara. Aparkalekuei dagokienez, TAO lekuak gutxiago izango dira: 23 leku, 39 beharrez; baina, 243 leku gehiago egongo dira

Manuel Gainza parkeko lurrazpiko parkingean. Eta zamalanguneak bere horretan utziko dituzte.

Lehenengo fasea

Hasiera batean, Algortako Etorbidea berrantolatuko dute, fase bitan. Lehenengoan, Telletxe eta Torrene kaleen arteko zatia berrurbanizatu dute, osorik, 4.130 metro koadroko azalera. Lanek 5 hilabete iraungo dute eta horien aurrekontua 741.000 eurokoa da. Lanen lizitazioa 2017an hasiko da. Ibilgailuen zirkulaziorako bide bakarra egongo da, luzera osoan. Espaloi berriek irisgarritasun araudia beteko dute: 3,5 metroko zabalera edukiko dute kalearen alde bietan, Andres Cortina eta Telletxe arteko zatian; egokitu diren gainontzeko espaloiek 2 metroko zabalera edukiko dute, gutxienez. Ilaran aparkatzeko tarteak egokitu dira, kalearen zabalera uzten duen lekuetan. Eremu osoan berrituko dira zoladura, galtzadako akaberak, espaloiak eta garajeetako sarbideak; hiri-altzari berriak (paperontziak...) ipiniko dira; argiteria publikoa osorik zaharberrituko da (LED teknologiazko argiak); eta saneamendu-sare berria ipiniko da.

Ostean, 2. faseari ekingo zaio, Torrene eta Mariandresena kaleen artean. Modu berean, bigarren kale horretako irisgarritasuna hobetuko da eta Euskal Herria kaleko zati bat oinezkoei begira egokitu dute. Aldi berean, Manuel Gainza parkean aparkaleku bat eraikiko dute; lurrazpikoa izango da eta 243 leku izango ditu, besteak beste. ◀



Txoritokitik

IÑAKI ZARRAOGA ZABALA
Getxoko alkate ohia

Bi ekimen egoki baina bietan zarata

Ez nintzen egon larunbatean Sarek antolatutako presoaren eskubideen alde egindako manifestazioan, osasun arazoak izan nituelako, baina bestela han egongo nintzatekeen aurreko urteetan bezala. «Sare» oso ondo ari da, nire ustez, lanean, presoaren giza eskubideen alde soilik egiten. Hala ere, gai honekin zarata handiegia egon da; Sareren ekimenaz aparte egun hauetan beste aldarrikapen batzuk egin dira, giza eskubideetatik harago egin daitezkeen aldarrikapenak (Kalera kalera, Presoaren familiak); eta zarata horretan batzuk nahastu egiten dira, eta ez dakite aldarrikapen bakoitza zertan datzan eta ez dute bereizten manifestazio bakoitzean zer eskatzen den. Eta nahaste horretan ez dira inon agertzen, giza eskubideen urraketaren aurka egin ordez, etxean geratzen dira.

Bereziki maite dudana aldarrikapen baten inguruan ere zarata datorrela iruditzen zait. Beldur diet EH Bilduk Legebiltzarrean burutuko dituen ekintzei. Zorritzarrez 2019an estatus politiko berria lortzeko baldintzak ez daude, orain dela gutxi beraiek 2023. urtea aipatu dute horretarako eta Diaz Usabiagak tarteko geltoki bat beharrezkoa dela aitortu du (Andoni Ortuzarrek esan zituen hitzak beraiek).

Catalunyaren ispiluan baino ez dute begiratu behar prozedura hauek oso luze joaten direla ikusteko. Zertarako bada ekimena? Beste alderdi baten kontra joateko? Zilegi da, baina erabakitzearen eskubidearen alde jendea pilatu nahi badugu, borrorak baino gehiago elkarrizketak eta adostasunak behar ditugu. Eta ekimen honek berriro ere mesfidantzak, desadostasunak eta haserreak ekar ditzake. Hemen ere zarata gehiegi? Batzuek eta besteek kudeatu beharko dituzte egoera hauek, onerako izan daitezten. ◀

gotzon barandiaran
rafa rueda

HITZEN AHAIREA

zeri karratzen diogu euskaldunok?

OTSAILAREN 1ETIK
MARTXOAREN 10ERA
ALGORTAKO VILLAMONTE
KULTUR ETXEAN
ASTEAZKENERO
19:00 - 21:00

IZENA EMATEKO SARTU:
WWW.BIZARRALEPOANEUS
WEB GUNEAN

ANTOLATZAILEA

BIZARRA
SUCESOS
MEXICAN

Getxo

señitu

Mesedeetako Andra Mari hezkuntza-zentroa

Leioako erdigunean bertan dago ikastetxea. Itunpeko ikastetxe pribatua eta elebiduna da, euskal jendaratean murgilduta dagoena, plurala eta balioetan hezitzailea.

Zu zara etorkizuneko hazia

Mesedeetako Andra Mari hezkuntza-zentroa. Euzko Gudariak kalea, 1. 48940 Leioa • Tel: 944 639 906 • Faxa: 944 639 892 • Idazkaritza: c.mercedes@euskalnet.net
www.mercedariasleioa.org

B eredia

Adin-tartea

1-16 urte



Eskola-ordutegia

Haur Hezkuntzako 1. zikloa:
09:00-12:00 / 14:30-16:30

*Sarrera-ordutegi malgua
07:30etik 10:00etara.
Itxiera-ordutegi malgua
16:30etik 18:00etara.

Haur Hezkuntzako 2. zikloa
eta Lehen Hezkuntza:
09:00-12:30 / 14:30-16:30

Bigarren Hezkuntza (DBH):
08:30-12:40 / 14:30-16:30
*Ostiralak: 08:30-14:00

Zerbitzuak

- Autobusa eta jantokia;
- Haurtzaindegia.

Eskolaz kanpoko zerbitzuak

- Eskolaz kanpoko kultur jarduerak, antolatzen dituzte eguerdiko eta arratsaldeko ordutegian.
- Familiei eta ikasleei zuzendutako hezkuntza-orientabidea eskaintzen da.

Karitateko Mesedeetako serorek sortutako ikastetxea da Mesedetako Andra Mari zentroa; bertan, ikasleak dira ekintzaren helburu nagusia, eta euren izaera esparru denetan gara dezatela bilatzen da.

Ikastetxearen antolatzeko moduak honako ezaugarri hauek ziurtatzen ditu: batetik, parte-hartzea sustatzen da, horretarako, hezkuntza-komunitateko kide guztiak baloratu eta horien motibazioa bilatzen da; bestetik, irakasleen etengabeko prestakuntza eta metodologia berritzaileen aldeko apustua egiten da. Azkenik, egoki kudeatzen dituzte proiektua aurrera ateratzeko beharrezko baliabideak.

Estrategia eta balioak

Balioetan hezteka da Hezkuntza Proiektuaren oinarria: ikasleei laguntzea gizakiaren existenziari zentzua ematen dioten oinarriko galderei modu askean eta autonomoan erantzuteko prozesuan.

Dibertsitatea dakarten heltze-etapa ezberdinak errespetatzen dira, hezkuntza-komunitateko kideen artean eratzen diren harremanetan zein eboluzio-prozesuetan. Etengabeko harrera lagunkoia eskaintzea da ikastetxearen jarrera, eta hizketa-giroaren zein ulermenaren alde egiten da. Askotarikotasuna ikasteko aukera bezala ulertzen da, eta pertsonarekiko eta komunitatearekiko konpromisotzat dute dibertsitateari eskainitako arreta.



Getxo

Prozesuaren lehenengo fasea

Udalak herritarren ekarpenak kontuan hartuko ditu 2017ko aurrekontuak osatzeko prozesuan. Horretarako, milioi bat euroko diru-saila esleitu du.



Iritziak helarazteko hainbat modu dago; Metro geltokietako postontzien bidez, berbarako.

Urtarrilaren 25era arte, 2017ko aurrekontuen zati bat osatzeko prozesuan parte hartzeko aukera izango dute auzokideek. Horretarako, Udalak milioi bat euroko diru-saila esleitu du, aurrekontuen aurreproiektuan aurreikusita dagoena. Prozesu hori Gobernu-taldeak (EAJ eta PSE-EE) eta EH Bilduk egindako akordioaren ondorioetako bat da. Prozesua fase bitan egingo da. Lehenengo honetan, herritarren proposamenak jasoko dituzte. Iritzia eman gura dutenek aukera nahikotxo izango dituzte euren nahiak aurkezteko, aurrez aurre edo *online* bidez: Herritarren Arretarako Bulegoetan eta beste hainbat lekutan ipinitako kutxetan iradokizunak sartuz; Algorta, Areeta eta Bidezabalgo geltokien inguruan ipini dituzten postontzietan inprimakiak utziz; posta elektronikoko bidez bidaliz, edo udal webgunearen bitartez.

Aurkeztu ahal izango diren udal-es-

kumeneko proposamenek lotura izan beharko dute jardukera-eremu hauek: Berdintasuna, Kultura, Kirola, Sustapen Ekonomikoa, Hezkuntza, Euskara, Gazteria, Ingurumena, Osasuna, Herritarren Segurtasuna, Babes Zibila eta Gizarte Ekintza, besteak beste.

EH Bildu ere iritziak batzen dabil

Getxoko udal-aurrekontuak osatzeko prozesu parte-hartzailea abiatu du berriro ere EH Bilduk. Gogoratu duenez, iaz hainbat herritar eta elkartek parte hartu zuten prozesu hartan, eta egindako hainbat ekarpen martxan ipintzea lortu dute, Gobernu-taldeagaz izandako negoziaketei esker. Koalizio abertzaleak azaldu duenez, urtarrilaren 31n egingo dute azkenengo bilera, eta aurreko guztietan batutako ekarpen guztiak azalduko dituzte horretan. ◀

info+: hiruka.eus/getxo
gobernuirekia@getxo.eus
www.getxo.eus/eu/gobierno-abierto

Hileta zibilak egiteko lekuak utziko ditu Getxoko Udalak

Getxoko agnostikoen hileta zibilak egin ahal izango dituzte, hilerriko gaubeila-gelan. Halere, leku hori ez dago egokituta oraindino; hori dela-eta, errituak Algortako Villamonte kultur etxean edo Torrene aretoan egitea onartuko dute, behin-behinean. Erabakia gai horren inguruan eztabaidatzeko lan-taldeak hartu badu ere, kritika ugari jaso ditu alderdi politikoen aldetik.

EH Bilduk hainbatetan aldarrikatu du hileta zibilak arautzeko ordenantza bat egiteko beharra dagoela. Horretarako, 2014ko martxoan mozio bat aurkeztu zuten, eta onartu egin zuten. Ostera ere, 2016ko urrian, batzorde-

ra eroan zuten ordenantza hori egiteko beharra. Hala, udal-talde guztien arteko lan-taldea osatu da, helburu horregaz. Halere, hileta zibilak egiteko aukera bakarra gaubeila-gela izatea nahikoa ez dela salatu du koalizio abertzaleak. Bestalde, EAJk erabakia defendatu du, «lan-taldea osatzen duten alderdi politikoen erabaki dutelako». Ostera, gaineratu du talde horrek lanean segituko duela, ordenantza behin betiko osatzeko. Beste alde batetik, hileta zibilak eremu publikoetan egitearen aurka agertu da PP. Iñaki Gamero bozeramaileak jakinarazi duenez, hilerrian egitearen alde daude, baina ez beste inon. ◀

Bilgune Feministak topaketa egingo du hilaren 28an Algortan

Bilgune Feministak 15 urte beteko ditu urte honetan. Hori dela-eta, urtemuga hori ospatzeko, Algortako taldeak herriko topaketa feministak egingo du hilaren 28an, zapatuan, Algortan bertan, 10:00etatik aurrera. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, topaketa horretan parte hartu gura duten guztiek alde aurretik izena eman beharko dute, hilaren 26a baino lehenago, mezu elektronikoko bidez bidaliz.

Gosaria, aurkezpena, talde dinamikak eta, azkenik, herri-bazkaria egingo dituzte egun horretan. Horrez gainera, umeentzako txokoa ere egongo dela iragarri dugu, behar izatekotan. ◀

info+: bfgalgora@gmail.com



Olaso jardungo da, Amorrorturen orde

GUK Getxoko zinegotzi Iñaki Amorrortu Martinezek kargua uztea erabaki du. Hori dela-eta, Enrique Olaso Garcíak hartuko dio lekua udal-taldean. GUK taldeko bozeramaileek jakinarazi dutenez, «lana eta familia bateragarri egiteko ezintasunagatik» utzi dio zinegotzi izateari Amorrortuk. ◀

AIXERROTA BHI IKASTETXEA
 Batxillergoak: • Teknologikoa • Natur eta Osasun Zientziak • Giza eta Gizarte Zientziak
 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) B eta D ereduak
 Zereginak ikasteko gela (A eta D ereduak)
 Informazio gehiago: www.aixerrotabhi.net • 94 491 17 86

portu zaharra bar
 Portu Zaharra kalea 25
 48001 Algorta-Getxo
 Tf. 94 468 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com

GARAIZAR BARRIKUNTZAK
 Eraikuntza zerbitzu integralak
 Illeta, 1. 48991 ALGORTA
 94 430 52 43 • 607 952 977
regaraizar@gmail.com • www.garaizar.biz

prentsa • aldizkariak
ITXASGANE
 Getxoko kirol portua • 94 491 53 21

GetxoGas
 GetxoGason Euskararekin bat!!
 Getxo eta Berango artean
 94 430 15 00

Erandio


Erandiok onartu ditu 2017ko aurrekontuak

la 31,3 milioi euroko aurrekontua onartu du Udalbatzak, arlo soziala eta enplegua «lehentasun nagusizat» hartuta.

Erandiok badauzka 2017rako aurrekontuak; horiek onartze-ko nahikoa izan ziren EAJk eta PSE-EEK osatzen duten gobernu-taldearen botoak. Halere, PP abstenitu egin zen, Udal Gobernuak euren 13 zuzenketa (400.000 bat eurokoak denera) onartu ostean. Diru-kontuen aurkako jarrera agertu zuten udalbatzan oposizioko beste talde denek: Ganemos Erandiok, EH Bilduk eta talde bako zinegotziak.

Bere gastuetarako 31.288.900 euro edukiko ditu Udalak aurten; hori iazko kopuruaren oso antzekoa da, %0,04 bakarrik murriztu da. Izan ere, gobernu-koalizioak iragarri du hainbat «marr gorri» ezarri dituela: «zerbitzu bat ere ez kentzea eta zenbait lehentasun mantentzea, eduki soziala duten arloak laguntzen ahalegintzeko». Hala, arlo horietan %8ko igoeraz harro agertu zen Elena Pérez zinegotzi sozialista, eta azpimarratu zuen Enplegu Arloan %9,15 euro gehiago izango direla. Ostera, inbertsioa %12,4 jaitsi da. Neurri horrek EH Bilduren kritikak eragin ditu. Gainera, ezkerreko koalizioaren arabera aurrekontuak «ez dira oso sozialak», gastuaren %90 bat «pertsiana zabaltzeko» delakoan. Ganemos Erandiok uko egin zion zuzenketak egiteari, eta «immobilistatzat» jo zituen diru-kontuak. Azkenik, Rafa Vaquerok azpikontratazioak kritikatu zituen. ◀

2017ko aurrekontuak
31.288.900 €



Aitana López. CC-BY-NC-SA PSE-EE

Aitana Lópezek ordezkatu du Elena Pérez udal-taldean

Aitana López Hernández astrabuduarra da PSE-EEK Erandioko Udalbatzan duen zinegotzi berria. Pasa den abenduan, Elena Pérez Barredo zinegotzi sozialistak dimititu egin zuen, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Segurantzza zuzendaritzaz arduratzeko. Lópezek 23 urte ditu, Zuzenbidean gradu-duna da eta hainbat ardura izan ditu Gazteria Sozialistan; Uribe Kostako koordinatzailea eta Bizkaiko komunikazio-arduraduna izan da. Pérezek eroaten zuen Gizarte Ekintza arloa Maite Pérez sozialistak kudeatuko du. ◀

Amaitu dute umeen jolasguneko estalkia, Erandiogoikoan

Daborduko amaitu dira lanak Erandiogoiko Mentxakena kaleko ume-parkearen jolaslekuan. Hala, neska-mutilek lasai jolas dezakete eurari kasu egin barik, euren buruen gainean estalki zeharrargi batek 200 metro koadrotan babesten dituelako. Ekimen horretarako 60.348,05 euro bideratu zituen Erandioko Udalak, BEZa barne. Itxaso Martiarena eta Egoitz Bilbao zinegotziek azaldu dutenez, lanek jolaslekua babesteaz gainera, kontuan hartu dute gunearren argitasuna, bere horretan mantentzeko. Obra auzokideek eskatu zuten, aurretik ez baitzegoen estalitako gunerik 12 urtez azpiko gaztetxoentzat. ◀

GURE ETXEA
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

BORDATUAK
EUSKAL JANTZIAK

AINGARA

Aurrezki kutxa, 18-48930 ERROMO-Getxo
94 403 89 53 • www.bordadosaingara.com

LUBERRI
OBRAK ETA ZERBITZUAK

• Soropila ezartzea, zaintzea eta mantentzea
• Inausketak
• Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Axpe ibaiertza 28A behe, B12 Lokala (ERANDIO)
629 41 18 38 • 94 467 17 13
luberry@luberry.biz
www.luberry.biz

txakoli
mota ganeTx
txakolina

Leloa-Unbe erreplidea 34
(Akarlanda parkea) Golerri-Erandio
94 467 00 07 • www.txakolimotagane.com

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

Algortako etorbidea, 78 ALGORTA • 94 491 27 34

Gura ixanez gero, etxera eroango dizugu egunkaria!

OSABIDE Hartz-Klinika
Arantza Etxebarria

• Odontologia orokorra
• Ortodontzia
• Periodontzia
• PADI

Bidebarri 27, behe eskuina. ALGORTA • 94 430 76 96

Leioa



Inbertsioen artean, Txorierrri eta Lamiako arteko igogailua ipintzeko diru-partida onartu dute.

Udal-aurrekontuak onartu egin dituzte

EH Bilduren abstentzioak ahalbidetu du EAJk eta PSE-EEK aurkeztutako proposamena onartzea.

Leioako Udalbatzak 2017rako aurrekontuak onartu zituen 2016ko abenduaren 22an, azken urteetako adostasun zabalenagaz. EAJk eta PSE-EEK osatzen duten gobernu-taldeko zinegotzien aldeko botoei eta EH Bilduko hautetsien abstentzioari esker onartu ziren diru-kontuak. Esnatu Leioako eta PPko ordezkariak, ostera, kontrako botoa eman zuten. Hala, Leioako Udalak 34.013.578 euroko aurrekontua edukiko du, 2017an; iaz baino %0,13 altuagoa izango da Udalaren diru-kontuen batuketara. Horregaz batera, erakunde autonomoen eta sozietate publikoen aurrekontuak ere onartu zituzten: Soinu Atadia Fundazioak eta Udal Musika Eskolak 2.207.374 euro izango dute; Euskararen Erakundeak,

berriz, 1.058.758,77 euro kudeatuko ditu.

EH Bilduk abstenitzea aukeratu zuen. Horri esker, ezkerzaleek mahaiaren gainean ipinitako zuzenketa partzialen kopuru handi bat jaso dituzte udal-kontuetan. Besteak beste, auzoentzako 600.000 euroko diru-partida berezi bat egongo da. Bestalde, lehendabiziko aldiz, gazte-plana garatu ahal izateko diru-kopuru bat ipini dute. Azkenik, «auzoetako kulturarako, komertzio lokalaren sustapenerako eta enplegurako partidek diru gehiago izango dute», koalizio ezkerzalearen ustez.

Bitartean, Esnatu Leioak osoko zuzenketa aurkeztu zuen; izan ere, «Gobernu-taldearen aurrekontu-proiektuak argi adierazten du agintariak ez dutela inolako asmorik Leioako herritarren zati handi batek dituen beharrei erantzuteko», 2017ko partidak 2016koak bezalakoak ei dira, Esnatu Leioaren ustez. ◀

Bizikletak mailegatzeko sistema eten egin du Udalak

Urteberri egunagaz batera amaitu zen Leioako Udalak eta gizar-te ekimeneko sozietate kooperatiba batez zeukatzen hitzarmena; 2011ko abendutik indarrean zegoen bizikletak mailegatzeko akordioa. Hori dela-eta, Udalak erabat eten zuen zerbitzua urteko lehenengo domekan. Agintari leioaztarrek azaldu dutenez, orain arteko «sistema hobetu» guran «herri-tarrei zerbitzua eskaintzeko beste sis-

tema eta bide eraginkorrago batzuk» aztertzen dabilta, «gure udalerrian garraibide ekologiko, osasungarri eta eraginkor hori sustatze aldera».

Bestalde, Udalak zerbitzu batzuen helbide elektronikoak aldatu egin ditu. Alde batetik, erregistro@leioa.net, estatistika@leioa.net eta info@leioa.net orain SAC01@leioa.net dira. Bestetik, Gaztelubideko bulegoaren helbidea SAC02@leioa.net izatera pasatu da. ◀

Martxora arteko ekintzak prest dauzka Gazteguneak

Aterpe Leioa Gazteguneak prest dauka urtariletik martxora bitarteko egitaraua; ikastaroetan izen-ematea urtarrilaren 20ra arte egin daiteke. Hala ere, lekuri geratuko balitz, urtarrilaren 23tik 27ra zabalduko dute izena emateko epea berriro. Jarduera denak 14 eta 35 urte arteko gazteei begirakoak dira, leioaztarrak izan edo ez; ostera, salneurri ezberdinak edukiko dituzte, eta Kultur Leioako bazkide-txartela eduki ala ez ere bai.

Horrez gainera, aratusteei begira hainbat ekintza antolatu ditu Aterpe Leioa Gazteguneak. Hasteko, txokolatada egingo dute otsailaren 25ean, zapatua, 20:00etatik aurrera. Egun berean, makillaje-tailerra egongo da, 18:00etatik 20:00etara. Ospakizunak amaitzeko, torrada-tailerra egingo dute, otsailaren 28an, martitzena, 18:00etatik 20:00etara. ◀

izen-ematea: gazte@leioa.net / 944 055 850

Tailerrak

Perkusioa

Urtarrilaren 30etik apirilaren 3ra
Astelehenetan, euskaraz eta gaztelaniaz, 18:30etik 20:30era. Salneurriak: 20 eta 45 euro artean.

Elikagai-manipulatuzailea

Otsailak 11, zapatua

Elkarteentzat, gaztelaniaz, 18:00etatik 20:00etara. Salneurriak: 5 eta 18 euro artean. Kultur Leioako Elkarre Lagun txartela daukaten talde bateko kideek doan parte hartu ahal izango dute.

Sukaldaritza (gluten barik)

Otsailaren 15etik martxoaren 8ra

Eguaztenetan, euskaraz eta gaztelaniaz, 18:00etatik 20:00etara. Salneurriak: 15 eta 35 euro artean.

Larru-tailerra

Martxoaren 7tik 28ra

Martitzenetan, gaztelaniaz, 18:00etatik 20:00etara. Salneurriak: 10 eta 30 euro artean.

Urdulizko ospitalera doan autobusa Leioan ere geldituko da

Astegunetan, ordueroko maiztasuna izango du (06:30etik 20:30era) Bizkaibus A3531 autobusak; Donibane kontserbatoriotik aterako da. Geralekuei dagokienez, ondokoak izango dira: Elexalde (Auzo Etxea), Ondiz, Artatza (suhiltzaileak), Negurigane eta Telleria; ondoren, Getxora sartuko da eta Berango eta Sopolatik igaroko da, Urdulizko ospitalera heltzeko. Gero, Laukiz eta Gatikatik igaroko da, eta Mungian amaituko du ibilbidea. Zerbitzua orduero egongo da zapa-tuan, 06:30etik 14:30era, eta bi orduan behin, 14:30etik 20:30era. Jaiegunetan, ostera, bi orduan behin, 08:10etik 20:10era. ◀

Bueltan dira umeei zuzendutako ipuin-kontalariak

Aurton ere Ipuinaren ordua izeneko egitasmoa martxan ipini du Leioako Udalaren Kultura eta Gazteria Sailak; ipuin-kontaketa saioak 3 eta 9 urte arteko umeei zuzenduta egongo dira, eta ezinbestekoa izango da alde aurretik izena ematea, liburutegian. Denera, zortzi saio egingo dituzte, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Emanaldiak hilaren azken egunean izango dira beti, Kultur Leioako haur-liburutegian, 18:00etan; sarrera, doan. Hala, lehenengo ekitaldia urtarrilaren 26an izango da, euskaraz, Lupe Lekunona ipuin-kontalariagaz; 3 eta 4 urteko umeentzako saioa izango da. ◀

izen-ematea: liburutegia@leioa.net

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz



- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jardura ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

BETIKO

IKASTOLA

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net



ikastolenelkartea

Sopela

Udalaren diru-kontuak, aurrera

Aurten 13,5 milioi eurokoa izango da Sopelako Udalaren aurrekontua; aurretik, EAJk eta PSE-EEK gutxienerako akordioa sinatu zuten EH Bildugaz.



EAJren, EH Bilduren eta PSE-EEren arteko hitzarmenaren sinatze-ekitaldia. © SOPELAKO UDALA

Sopelako Udalbatzak abenduaren 29an onartu zituen 2017ko udal-aurrekontuak. EAJk eta PSE-EEK proposatutako 13,5 milioiko diru-kontuak aurrera atera ziren EH Bilduk emandako abstentzioari esker. Aurka agertu ziren Denok Batera, Sopela Orain, eta talde bako zinegotzia. Udal Gobernuaren arabera, EH Bildugaz aurretik sinatutako akordioak «Sopela eta sopoloztarrontzat garrantzi handia dauka, pertsonen alde lan egiteko eta desberdinen artean akordioetara heltzeko konpromisoa azpimarratzen baitu». Gainera, azpimarratu dutenez, «14 puntuz osaturiko akordio horretan, Urdulizko ospitalearen eta Berangoko merkataritza-zentroaren irekieraren aurrean trafiko arazoak zuzentzeko ekimenak batzen dira, besteak beste».

EH Bilduk, ostera, bestelako irakurketa egin du eta hala azaldu zuen udal-bilkuran. Koalizioaren ustez, Udal Go-

bernuaren aurrekontuen proiektua «egitasmorik gabekoa, gardentasunik gabekoa, herritarron parte-hartzerik gabekoa eta negoziatzeko denborarik gabekoa» izan da. Halere, defendatu egin zuen abstentzioa emanez aurrekontuak «desblokeatzea», «Sopela hobetzeko ahaleginetan, 13 proposamen zehatz aurrekontuetan sartzea» lortuta. Zuzenketen artean dira kulturegune berria, liburutegiaren birmoldaketa, etxebizitzetarako laguntzak, Zipiriñeko IGERen laguntza, euskara-plana, oinezko gunea Jauregizarren, ikastolarako bidegorria, Urko berritzea, umeen parkeak berritzea edo parte-hartzea bultzatzea. Bestalde, aurrekontuen bilkura atzeratzea eskatu zuen Denok Baterak, dena aztertzeke astirik ez zegoelako; baina, Udalbatzak ez zuen onartu. Sopela Orainek, ostera, osoko zuzenketa aurkeztu zuen; alkateak ez zuen botorik ematen utzi, balio teknikorik ez zuela agudiatuz. ◀

Itzartu elkarteak berbaldi pare bat egingo ditu egunotan

Sopelako Itzartu emakumeen elkarteak berbaldi-zikloa abiatuko du egun honetan, hilaren 19an. Nuria Sorli psikologoak *Desbloques emocionales para una sociedad nueva* izenburuko berbaldia eskainiko du. Otsailaren 2an, egunean, Itziar Gloria Historian lizentziatuak entzuleak hurreratuko ditu Leonor Akitaniakoa Frantzia eta Ingalaterrako erreginareen pertsonalitatera eta utzitako ondarrera. Otsailaren 16an, berriz, Gloria del Castillo antropologoak *Crecimiento personal y liderazgo* berbaldia emango du. Hitzaldi denak gaztelaniaz izango dira, eta 18:00etan hasiko dira, Landa Doktoarearen kalean dagoen Itzarturen lokalean. ◀

DBk dio Jauregizarko umeen jolas-parkea «arriskutsua» dela

Denok Batera plataformak salatu duenez, pasa den urtarrilaren 4an, guraso batek jakinarazi zien Jauregizar plazako itsasontziko zati bat «bere begien aurrean erori» zela. Hala, nabarmendu dutenez, «jolaslekuetako elementuak zatika erortzen dira, eta estali gabe geratu diren mutur herdoilduek arrisku handia ekar diezaiakete Sopelako umei». Salaketa jaso eta egun berean, eroritako pieza eroan zuen Udal-tzaingora Jon Andoni Gerediaga DBko zinegotziak. Horregaz batera, Jauregizar plazako jolasgunearen arriskuen berri eman zion Sopelako Udalari, erakundeak ahalik eta lasterren babesneurriak har zitzan. ◀

Gazte baten heriotza eragin duen lan-istripua salatu dute

Pizzak banatzen behar egiten zuten 24 urteko gizonetako bat hil zen pasa den urtarrilaren 9an, banaketa egiten zebilela zirkulazio-istripu bat izan eta bi astera. Gaztea (A.R.J.) Sopelako Mec Mec pizzeriako langilea zen. ELA, LAB, ESK, Steilas, EHNE eta Hiru sindikatuek senideei babesa eta elkertasuna adierazi eta istripua ikertzeko eskatu zieten Osalari eta Lan Ikuskaritzari, «eskuduntzen ikuspuntutik zirkulazio istripuztat hartuko badute ere». Era berean, elkarretaratzea egin zuten langilea hil eta lau egunera, lantokiaren aurrean, *Lan istripu gehiagorik ez! Prekarietatea hiltzailea* goiburugaz. Ernai gazte-



Dozenaka lagun batu zen elkarretaratzean.

taldeak ere performance bat egin zuen Algortan, lan-istripua irudikatuz. Azkenik, hainbat ezezagunek pizzeriaren leihoak apurtu zituzten, pasa den zapatuan; «Bizia kentzen badiguzue, adi ondorioei», ohartarazi zuten. ◀

DIDAK HAMILTON
IDIOMAS
 Ingelesa · Frantsesa · Alemaniera
 · Taldeak, enpresak eta partikularrak
 · Eskolaz kanpoko ekintzak
 · Maila guztiak
 · Ingelesa 3 urtetik aurrera
 · Talde txikiak
 · Ingalaterran egonaldiak
 Dr. Landa, 6/Iberre 9 · 48600 SOPELA
 94 676 30 12
 info@didakhamilton.com

ARTOLOZAGA ANAIK
Tailerrak
 Mekanika · Karrozeria · Elektronika
Sopelan
 Gatzarrine z/g
 94 676 00 13
 94 676 38 14
 www.talleresartolozaga.com
Sestaon
 Miguel Servet, 6
 94 472 13 74
 Jatorrizko bermea mantentzen dugu!
BOSCH Service
 Car Service

hau herkontzatik
ander deuna batxilergora
 Gatzarrine bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28
 info@anderdeuna.eus · www.anderdeunaikastola.eus



Sarritik Borobiara

PAUL
BILBAO SARRIA
Kontseiluko Idazkari Nagusia

Mugimendua mugitu, bagara nor

Dabilen harriari goroldiorik ez, dio euskal esaerak. Mugimenduari esker, mugitu izanari esker, mugiarazi izanari esker urratsak egin ditu gure hizkuntzaren normalizazio-prozesuak. Geldi ez garelako egon, ez dugulako geldirik utzi.

Mitxelenak zioen egiazko miraria euskararen iraupena dela, ez, ordea, jatorria. Bada, nik ez dut batere sinesten mirarietan, eta zinez uste dut herri-gogo indartsua izan dela euskara mugimenduan mantendu duena: Mugimenduak mugitu eta mugiarazi du.

Herri indarrari, herri gogoari, herri bizi-nahiari esker ekarri dugu euskara egungo egoerara. Eta, bai, bidea dugu egiteke, baina mugimenduak mugitu egin du. Azken hamarkadotan mugimenduak, herri-gogoak, milaka hitzun berri sortu ditu; euskaraz bizitzea ahalbidetzeko espazioak sortu ditu; eta, noski, euskaraz bizi ahal izateko tresnak eskura jarri dizkigu. Are gehiago, eragin ere egin du, eta beharrezkoa izan denean kalera ateratzeko deia egin du euskaraz bizitzea esku-bidea dela aldarrikatzeko. Mugimenduak milaka pertsona hamar egunez gelditu gabe korrika jartzeko gai ere izan da.

Euskararen aldeko mugimenduak bezalaxe jokatu dute Europako hamarnaka hizkuntza-komunitateko mugimenduek, eta indar hori baliatuz, guztiok batera, abenduaren 17an Donostian gure eskubideak bermatzeko bide orria aurkeztu genuen. Europan inoiz egin den ariketarik konplexuenaren ondorioak aurkeztu genituen, hain zuzen ere, geure lurraldeetan geure hizkuntzetan bizitzeko zer egin beharko litza-tekeen adostu genuen hogeita hamar hizkuntza-komunitateko ehunetik gora eragilek. Eta, bai, beste behin mugimendua mugitzeko gai izan da, mugimendua badelako nor, bagarelako nor. ◀

Berango

Gartxot Egunera doaz

Simon Otxandategi taldekoak Itzaltzura (Nafarroa) joango dira, bardoaren omenezko jaialdian laguntzera.

Urtero legez, Gartxot bardoa-ri gorazarre egiteko jaialdia antolatu dute. Aste-akabu honetan izango da, Itzaltzun (Nafarroa). Hori dela-eta, Berangoko Simon Otxandategi taldekoak Nafarroako udalerrri horretara joango dira, zortzigarrenez, jaialdiaz goatzera, baina baita bertako antolaketa-lanetan laguntzera ere. Taldeko joaldunak ere hurreratuko dira bertara, euren joareen hotsak Zaraitzuko ibar guztian entzunarazteko. Itzaltzuko Gartxot Eguna hilaren 21ean eta 22an izango da, eta tarte horretan, hamaika ekimenez gozatzeko



info+: www.gartxot.com

aukera izango dute bertaratuko diren guztiek, berbarako bertsolariak, film-proiektzioak, kantaldiak, dantzaldiak eta herri-bazkariak egongo dira. Simon Otxandategi taldearen presidente Iñaki Gonzalezek azaldu duenez, taldeko

kideak Gartxot Ekimena Elkartegaz elkarlanean ibili dira zortzi urteotan, jaialdia antolatzen. Hala, denbora tarte horretan, bazkariak prestatu dituzte eta musika ekipoa eroan dute berangoztarrek, besteak beste. ◀

Miren Dobaran da Hizkuntza Politikarako sailburuordea

Miren Dobaran berangoztarrak hartu du Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordearen ardura, Patxi Baztarrikaren ordez. Dobaran Euskal Filologian lizentziaduna da, eta itzultzaile-ikasketak ditu. Irakasle gisa egin du bide luzeena. Uribe Kostako euskara-teknikari, Berangoko alkate eta Aldundiaren Euskara Sustatzeko Zuzendari Nagusia ere izan da. ◀



Yoko eta lagunak filma proiektatuko dute domekan

Urte berria hasteagaz batera, egitarau oparoa antolatu du Berango Antzokiak: antzerkiak, abesbatza emanaldia, zinema proiektzioak... denetarik egongo da aukeran egunotan. Izan ere, domekan, hilaren 22an, *Yoko eta lagunak* animaziozko filma proiektatuko dute, 18:00etan. Sarrera doakoa izango da, batez ere kalean jolastearen garrantzia nabarmentzen da. ◀

Gorliz

Kirol-azpiegiturak hobetzeko, 710.000 euroko inbertsioa

Gorlizko Udalak 710.000 euro inbertsioa bideratu zituen iaz udalerriko kirol instalazioak hobetzeko. Modu berean, urteko balantzeak agertu duenez, 275.000 euroko diru-sarrerak egon dira, gehiengoa abonuetatik eta ikastaroetatik jasotakoak. Kirol-instalazioak hobetzeko diru-inbertsioa 2013tik egindako handiena izan zen; urte horretan inbertsioa 633.000 eurokoa izan zen. Arlo horretan, «gastu gehien sortzen dituen pertsonala da, 384.000 euro»; besteak izan dira ur, gas eta elektrizitate hornidurakoak, ia 167.000 euro. Abonuen diru-sarre-rei dagokienez, urteko familia-bonua da kuota gehien batu dituen: tarifa



144,49 eurokoa da, eta 262 izen-emate daude. Halere, bazkide gehien dituen abonua urteko norbanakoena da, 340 lagun ditu, 105,17 euroan. Askotariko abonua kontutan hartuta, kiroldegiak 1.498 bazkide ditu, guztira. ◀

Segurtasuneko Delta enpresak jagongo du Gorlizko ospitalea

Gorlizko ospitalearen segurtasun-eta zaintza-lanetarako zerbitzua esleitu dio Delta segurtasun-enpresari Osakidetza. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak EAEko Buletin Ofizialean argitaratu duenez, segurtasuneko zerbitzu hori 169.774 euroan esleitu dute (BEZa kontuan hartuta). Egindako txostenean bertan agertzen denez, Delta segurtasun-enpresak aurkeztu du proposamen abantailatsua, ikuspegi ekonomikotik, eta kontratazio txostenean agertzen diren esleipenerako irizpideen arabera.

Leioako campuseko segurtasunaren ardura izan du Delta enpresak hainbat urtetan, besteak beste. ◀

Barrika

Sententzia irmoa Barrikan

Udalak eta Aldundiak 1,5 milioi euroko kalte-ordaina ordainduko dute, Barrikabasoko txaleten auziagatik.

Barrikako Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak 1,5 milioi euroko kalte-ordaina ordaindu beharko diote hiru enpresa eraikitzailei; hala ebatzi du EAEko Auzitegi Nagusiak. Barrikako Udalak ez duela helegiterik aurkeztuko jakinarazi du; enpresek ere ez dute egingo.

Barrikabasoko gune babestuan dagoeneko eraikita dauden hamalau luxuzko txaletak legez kanpokotzat jo zituen 2009an Espainiako Auzitegi Gorenak, horien eraikuntza baimentzeko lurren kalifikazioa legez kanpokoa izan zelakoan. Interes paisajistiko handiko lekua da Barrikabaso, eta «babes bereziko gune» izendatua du Eusko Jaur-laritzak; horrenbestez, ezin da lurrotan eraiki. Ostera, bertako hemeretzi hektareako eremuaren kalifikazioa aldatu zuen Bizkaiko Foru Aldundiak 1998an, Muriola eta San Telmo sektoreetan: lur urbanizagarri izendatu zituen, luxuzko

85 txalet eta babes ofizialeko hamabi etxebizitza eraikitzeko. Alabaina, kalifikazioak ontzat hartzen zituen foru-agindua atzera bota zuten azkenean, eta horrek eragindako kalteengatik 24,6 milioi euroko kalte-ordaina eskatu zuten enpresa sustatzaileek: Astarloa 91, Arne Muriola eta Abandonada Muriola. Halere, Auzitegi Gorenak onartutako kalte-ordaina txikiagoa izan da: 1,5 milioi eurokoa, guztira; 230.631 euro Muriola sektoreko kalteengatik eta beste 1.290.033 euro San Telmokoengatik.

Egoera horren aurrean, sententzia «nola gauzatuko den» jakinarazteko, Unai Rementeria diputatu nagusiari azalpenak ematea eskatu diote, Onintze Oleaga EH Bilduko batzarkideak eta Asier García koalizio abertzalearen Barrikako zinegotziak jakinarazi dutenez. Modu berean, gaineratu dute kalte-ordaina Barrikako Udalaren urtebeteko aurrekontuen zenbatekoaren parekoa



Babes bereziko gune izendatuta dago Barrikabaso ingurua.

dela, hau da, 1,5 milioi eurokoa. Eta gogoratu dute proiektua 85 txaletentzat zela, «ingurua horientzat guztientzat urbanizatuta dago; hori guztia berreskuratu behar da eta dirua gastatu beharko da».

Auziaren aurrekariak

Barrikako Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak hitzarmen bat sinatu zuten Barrikabaso inguruko ugazabakaz, 1990ean; eta adostu zuten 349 txalet, hotel bat eta golf-zelai bat eraikitzea. Halere, urte bi lehenago, Eusko Jaur-laritzak babestu beharreko gune izendatu zuen inguru hori, daukan pai-

saia-balioagatik. Udalak proiektua alde batera utzi zuen, behin-behinean. Ostera, urte batzuk geroago, lursaila birsailkatu eta 85 txalet eta babes ofizialeko 12 etxebizitza eraikitzeko proiektua onartu zuen. Foru Aldundiak ontzat eman zuen egitekoa. Horren aurrean, Txipio Bai talde ekologistak hori guztia salatu zuen; hiru sententziek legez kanpokotzat jo dute birsailkatze hori. Horiek denek eraikitako 14 txaletak botatzea onartu zuten, baina ekologistek bestelako irtenbide bat bilatu zuten. Hala, Udalak eta talde ekologistak Barrikabaso babes bereziko gune izendatzea adostu zuten, 2015eko akabuan. ◀

Urduliz

Hainbat zerbitzu, lehiaketa publikoan

Urdulizko Alfredo Espinosa ospitalearen lentzeria, sukaldea, elikadura eta ebakuntzageletako arropa-zerbitzuak lehiaketa publikora ateratu ditu Osakidetzak. Hartara, elikadura-zerbitzua 4,2 milioi euroan (BEZ barik) esleitzeko aurrekontua onartu dute. Lentzeria-zerbitzua, berriz, 3 milioi euroan emateko aurrekontua dute (BEZ barik). Garbiketa-zerbitzua, ostera, eraikina martxan ipini zenetik dago pribatizatuta.

LAB sindikatuaren iritziz, zerbitzu horiek denak «funtsezkoak» dira osasun publikoak ondo funtzionatzeko; horrenbestez, «Osakidetza langileen esku egon behar dute». Modu berean, azalpen publikoak emateko eskatu dio Jon Darpon Osasun kontseilariari sindikatuak, baita bere dimisioa aurkezteko ere, «zerbitzu berriak ez pribatizatze konpromisoa ez betetzeagatik». UGT sindikatuak ere azpikontratazio horiek guztiak salatu ditu. Salaketa

horiei erantzunez, Eusko Jaur-laritzako Osasun Zerbitzuak oharra kaleratu du. Horren arabera, Osakidetza ez du bere politika aldatu, eta Urdulizkoan ere zerbitzu horiek azpikontratatu dituzte, gainontzeko ospitale publikoetan egin izan duen bezala. Horren harira, Osakidetza gogoratu du enpresa pribatuak ere «aberastasuna» sortzen dutela EAEn, «baita lanpostuak ere».

Era berean, Osasun Zerbitzuak nabarmendu duenez, 2016an mota horretako azpiegitura bat martxan ipini zuen autonomia erkidego bakarra izan da EAE. Horretarako, 60 milioi euroko inbertsioa egin duela gogoratu du, eta Urdulizko ospitaleak 175.000 lagun artatzeko ahalmena izango duela jakinarazi. Horrez gainera, ospitaleak askotariko 500 lanpostu sortuko dituela azpimarratu du, besteak beste medikuak, erizainak, jagoleak, erizain laguntzaileak eta administrazio-laguntzaileak. ◀

Ekainera bitarteko ikastaroak antolatu ditu Inola elkarteak

Urdulizko Inola Emakumeen Elkarteak bueltan da daborduko. Urtariletik ekainera bitartean, hainbat ekimen eta ikastaro antolatu ditu elkarteak, eta horietan parte hartzeko izen-ematea zabaldu du. Hala, interesdunek biodantzaren bidez ahal-

duntzeko ikastaroan izena eman ahal izango dute. Ikastaroa Urdulizko kultur etxean izango da; ordutegia zehazteke dago. Gainera, genero-ikuspegi-filmak proiektatuko dituzte hilean behin, barikuren batean, 19:00etan. ◀


info +: 946 763 496 / amujerinola@gmail.com

XURRUT 
 Pizza Bar · Musika zuzenean
 946 77 13 89 · GORLIZ · www.xurrut.com

Irunbat 
 galp energia
 Lurrola Ander Drana, 74
 48000 SOPELA
 946 764 625
 www.irunbat.net

MARTITZEN ETA ZAPATUETAN ESKAINTZA BEREZIA

TXIBERRI
 EDANTOKIA
 FRONTOI PARTIKULARRA



AITA GOTZON 4, URDULIZ
 94 676 07 15



Branka

JANIRE ENZUNZA LANDA
 Filologoa eta irakaslea

Urte barri, erronka barri: geure esku

Ikusiko zenduan, irakurle, 2017ak aurpegi barriak ekarri dituala HIRUKAko zutabeetara, halanda ze, urtean zehar, noizean behin, alkar ikusiko dogu. Daborduko asago dagoz Gabonak, opariak eta protokolozko jatorduak, eta egunerokoak ekarri gaitu errealidadera. Gatz ikusten dogu orain dala egun batzuk amestu doguzan gurariak egia bihurtzea, baina gure esku dago bizimoduari gatz apurtxu bat botatea, aldatzeko, barrizteko, freskatzeko... edo urte barria ernegetan emotea. Abenduan balantze positiboa egin ahalko dogu, beti be, asmoak aurrean ipinten bado-guz, amesak beharrean.

Lerro honeek irakurten dozu-zanerako, atzean lotuko da urteko egunik tristeena (urtarrileko hirugarren ilena edo astelehena, Ingalaterrako zientzialari eta ikerkuntza batzuek dinoenez). Hori dala eta, ez daukagu atxakiarik makurrik agertzeko. Izan be, gixi falta da lurra izartzera joateko errondak egiteko eta ingurukoei oles egiteko, askok *Aintzaldun* (sic) edo, beste barik, *Santa Ageda* izendatzen dabena. Zezeilaren 4ko tradizioaren ganean daki-zuna akabuko adibideen erakoa bada, informatzea gomendatzen deutsut, geure eskualdean bertan badaukaguz-eta koplak zaharrak (eta ez kutsu erlijiosoak daukien kantu barriagoak) kantetan dabezan taldeak.

Erosotasuna, motibazio falta edota aldaketarako bildurra ikusten dodaz geure gizartean jantzan, eta holan dator lehen aitatu dodan ernegua. Errezena da bolo-bolo dabilen diskursoa geureganatzea, danok bardina esatea eta askoren mina tontoen atsegin bihurtzea; atzera aditzea beharrezkoa da, bai, baina ez adi lotu, ezpada arteragokoa hobetu aurrera egiteko. Nik, irakurle, aurtan (eta hurrengoetan be) zu zeu izatera animau gura zaitut: ahalegindu eta borrokatu, zeure garai-penak ospatu. ◀

Uribe Kosta

Ekintza sozialaren alde

Mankomunitatearen aurrekontuak 3,2 milioi eurokoak izango dira aurtan, iazkoak baino %3,78 handiagoak.

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak 2017ko aurrekontuak onartu ditu: 3,2 milioi euroko zenbatekoa edukiko du aurtan. Kopuru hori iazkoa baino %3,78 handiagoa da. Hain zuzen ere, alde hori izango da Ongizate arlo-ara bideratuko dutena, jakinarazi dutenez. «Arlo horren zerbitzuak areagotuko dira, berriak eskaintzeko edo gutxi garatuta daudenak ezartzeko», azaldu du Anabel Landak, Mankomunitateko presidentea eta Berangoko alkatea. Aurrekontu horiek handitzeko, Mankomunitatea osatzen duten udalerriek



Ongizate arloan inbertsioa handituko dute aurtan.

ahalegin handia egin behar izan dute. Hala, Gorliz, Plentzia eta Urdulizek 300.000 bana euro ipiniko dituzte. Berangok, berriz, 309.180 euro ipini ditu, iaz baino %3 gehiago. Sopelak, ostera, 740.676 euro jarri ditu, aurreko edi-

zioan baino ia %2 gehiago. Azkenik, Barrikak eta Lemoizek, eskualdeko herri txikienek, 68.212 eta 84.672 euro ipini dituzte, hurrenez hurren, aurrekontuok osatzeko, beren-beregi. ◀

info+: www.uribekosta.eu

Euskara Agendak urtebete egingo du hilabete amaieran

Ildar hartuta, bero-bero dator Gorlizko eta Plentziako Euskara Agenda bateratua aurtan. Urtarrileko lehenengo egunak patxadaz hartu ostean, ekimen indartsuak izango dira datozen egunetan kostaldeko herri bi horietan. Izan ere, urtebete igaro da Euskara Agenda martxan ipini zutenetik, euskararen erabilaren normalizazioaren bidean. Udallerri bietako udalek abiatu zuten, Mankomunitateko Euskara Zerbitzuagaz elkarlanean. Hala, urtebetetzea ospatzeko, hamaika ekimen antolatuko dituzte aurtan ere; lehenengoa izango da hilaren 27an, barrikuan. Horretan, Alaia Martin eta Fredi Paia bertsolariak kantaz alaituko dute Plentziako Danontzat gaztetxea. Izan ere, egun horretan bertso-afaria egon-



info+: euskeraz@uribekosta.org

go da gune autogestionatuan, 21:30etik aurrera. Hurrengo egunean, ostera, magiak hartuko du agendaren lekukoa, Txan magoaren ikuskizunagaz. Danontzat gaztetxean izango da ekitaldi hori ere; horren hitzordua arrastiko 05:00etan ipini dute. ◀

Amatasunen gaineko ikastaroa eskainiko du Lilagunek

Amatasunen inguruko iritziak elkartrukatu eta eztabaidatzeko taldea antolatu du Lilagunek. «Amen-tzako kafea» izeneko ekintza horrek hainbat helburu ditu: «ama idealaren» inguruko mitoak, rolak eta sinemenak kolokan ipini, mitoaren itzalak erakustea, elkarri laguntzea; bakoitzak gura duena izan dadin eta emakume guztientzat bidezkoagoa den

amatasuna proposatzea. Urtarrilaren 20an, otsailaren 17an, martxoaren 17an, apirilaren 7an, maiatzaren 12an eta ekainaren 9an egingo dira saioak, 17:30etik 19:30era, Sopelako Kurtzio kultur etxean. Tailerrak doakoak dira, eta 18 urtetik gorakoentzat. Horretan parte hartu ahal izateko Mankomunitateko zazpi udalerrietako batean erroldatuta egotea beharrezkoa da. ◀

Garraio-txartel berriak ipiniko ditu martxan BGPk

Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGP) mota askotariko txartel berriak onartu ditu; horiek Metro Bilbao, EuskoTren eta Bilboko tranbian erabili ahal izango dira. Txartelok metroaren 3. linea martxan ipini baino hilabete lehenago ipiniko dituzte salmentan, apiril aldean. Txartel eta tarifa berri horiek onartzeak «onurak» ekarriko dituela nabarmendu du BGPk, eta «tarifen integrazioarako» aurreneko urratsa dela. Bizkaiko Foru Aldundiak ezarpen horretan parte hartu du modu askotariko Gazte-txartel berriak sartuz; gazteek Bizkaibusean ere erabili ahal izango dituzte txartel horiek, esate baterako.

Modu askotariko txartel berriak

Sistemak eremuka funtzionatzen jarraituko du. Modu askotariko txartel berriak baliodunak izango dira 30 egunez eta bertsio bi izango dituzte: bata, gazteei begirakoa izango da; bestea, gainontzekoei zuzendutakoa. Bakoitzak aukera bi izango ditu: batek bidaia-kopuru mugatua izango du; besteak, bidaia-kopuru mugagabea. Hala, titulu berri horiek hauek dira: Bidai 50, Bidai 70 eta Gazte 70, horiek bidaia mugatuei dagokienez. Bidaia mugagabeak egiteko, ostera, Barik Urrea eta Barik Urrea Gazte erabili ahal izango dira. Aldi baterako txartel pertsonal denak desagertu egingo dira. ◀



Behoko Laraine taldeak *Atte hil aurretik* antzezlanaren taularatuko du, Kultur Maratila jardunaldien barruan. © BEHEKO LARRAINE

Hurrengo ekitaldiak

Urtarrilak 20, barikua

21:00 Musika Gertu zikloaren barruan, *Estutu* izeneko diskoa aurkeztuko du Gari abeslari legazpiarrak, Maldanbera taldeagaz, Kultur Leioako edaritegian. Sarrera: 5-10 euro.

Urtarrilak 27, barikua

20:30 AIREnoAR ikuskizuna eskainiko du izen bereko dantza-taldeak, Kultur Leioako entzungelan. Sarrera: 5-10 euro.

Otsailak 1, eguztena

20:00 Kultur Maratilen barruan, *Amorante* ikuskizuna eskainiko du Iban Urizar musikariak, Kultur Leioako erakusketa-aretoan. Sarrera, doan.

Otsailak 2, eguztena

20:30 Kultur Maratila jardunaldien barruan, *Atte hil aurretik* antzezlanaren eskainiko du Behoko Laraineek, Kultur Leioako entzungelan. 14 urtetik gorakoentzat. Euskaraz. Sarrera: 3-6 euro.

Leihoak, zabalik!

Kultur Leioak 22 ikuskizun eskainiko ditu, urtarriletik ekainera artean. Bazkide-txartela edukiz gero dauden beharpenez gainera, eskaintza bereziak ere egongo dira.

Leioako Udaleko Kultura Sailak urtarriletik eta ekainera arteko agenda aurkeztu du: 2017ko lehenengo seihilekoan, Kultur Leioako gune eszenikoetan, 22 ikuskizun egongo dira: 5 antzezlan, 5 dantza-saio, 8 kontzertu eta 4 familia-ikuskizun. Horiekaz batera osatuko dute Leioako kultura-eskaintza zinema, erakusketa, lehiaketa edo gazteentza-

ko jardueren programazioek, eta Aterpe Leioa Gaztegunean eta lau auzogelatan eskainiko direnak (Lamiako, San Bartolome, Txorierrri eta Pinueta).

Urteko lehenengo zatiko plater nagusietako bat Kultur Maratila izango da; Artedrama plataformagaz batera antolatzen du Kultur Leioak eta eskal sormena ikusgai duen jaialdi txiki horren seigarren edizioa izango da

aurtengoa. Hala, otsailaren 1etik 5era, sei proposamen eszenikoz gozatu ahal izango da; laster zehatzago emango dute horren berri.

Bestalde, honezkero klasikoa den Musika Gertu formatu txikiko zikloaren barruan, kontzertua eskainiko du Gari abeslariak, Maldanbera taldeagaz, bariku honetan, urtarrilaren 20an; *Estutu* diskoa aurkeztuko du laukoteak. Emanaldia 21:00etan hasiko da, eta sarrerak 5-10 euroan daude.

Dantza maite dutenentzat, Galiziar AIREnoAR konpainiak izen bereko ikuskizuna eskainiko du, urtarrilaren

27an, barikuan. Dantza garaikidea, soka espezialitateko zirkua eta zuzeneko musika batzen ditu lan horrek. Hitzordua 20:30ean ipini dute, eta sarrerak 5-10 euroan daude salgai.

Salneurriak berbabide direnez, Kultur Leioako lagun-txartelaren abantailaz gainera, bestelako eskaintza interesgarriak ere egingo dituzte: abonua, pack-ak, talde-sarrerak, gazte eta familiarrentzako eskaintzak, eta abarrak. Eta Umore Azoka aipatu barik ezin amaitu; kaleko artisten topagunea, maiatzaren 18tik 21era bitartean izango da. ◀

info+: www.kulturleioa.com

Agate Deuna jaialdiak, hainbat udalerritan

Usadio zaharrari eutsiz, otsailaren 4an, zapatua, kale eta plazetara aterako dira Euskal Herri osoan ehunka pertsona, zahar zein gazte; eta Uribe Kosta ez da salbuespena izango. Kontuak hala, barikuan goiz-eguerdian ikastetxeetatik aterako dira gaztetxoak, makilak eskuan. Zapatuan, berriz, lehiaketari edo hitzartutako ibilbideari jarraituz, abestuko dute nagusiek hainbat herritan. Besteak beste, Sopolako Udalak kantu-sariketa antolatu du. Otsailaren 2ra arte egongo da izena emateko aukera, Kurtzio kultur etxean. Bestalde, urtarrilaren 27a izango da Getxoko Agate



Kale eta plazetara aterako dira herritarrek.

Deuna Koru Jaialdian izena emateko azken eguna; Algortako kultur etxean egin daiteke. Azkenik, Kultur Leioan eskuragarri daude Santa Agedako Kanten Lehiaketaren oinarriak. ◀

Irakurzaleek hainbat ekitaldi izango dituzte

Urtarril honetan ere zorioneko daude Uribe Kostako irakurzaleak; izan ere, badaukate zer aukeratu hango eta hemengo hainbat hitzorduren artean. Sopolako Irakurle Klubak eta Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoak liburu bera aukeratu dute urteari hasiera emateko. Hala, egunean, Miren Gorrotxategi (Azpeitia, 1981) idazlearen *33 ezkil* (2016, Elkar) eleberrir beltzaz berba egingo dute, Kurtzio kultur etxean, 19:00etan. Astebete beranduago, idazle azpeitiarra bera egongo da Algortako kultur etxean bertan, 19:30ean, liburu hori aurkezteko. Saio biak euskaraz izango dira; doan. ◀

Hainbat saio

Urtarrilak 19, eguztena

19:00 Sopolako Irakurle Kluba. Miren Gorrotxategiaren *33 ezkil* (2016, Elkar) eleberrir beltzaz berba egingo dute, Kurtzio kultur etxean. Euskaraz. Sarrera, doan.

19:00 Alberto Díez berangoztarrak *Vascos, burgaleses y riojanos, primeros hermanos* liburua aurkeztuko du, Algortako kultur etxean. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Urtarrilak 26, eguztena

19:30 UKITX Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoa. Miren Gorrotxategi idazlearen *33 ezkil* (2016, Elkar) eleberrir beltzaz berba egingo du, Algortako kultur etxean. Euskaraz. Sarrera, doan.

Miguel Moyano, Natxo Beltran eta Ekaitz Hernandezegaz laukotea osatu du Garik. © GARI



LEIOA

Maldanbera taldeagaz joko du Gari abeslariak

Bariku honetan, urtarrilak 20, 2015ean osatutako Maldanbera laukoteagaz joko du Iñaki Garitaonaindia Gari abeslari legazpiarrak, Kultur Leioako edaritegian. Hitzordua 21:00etan ipini dute; sarrera 5-10 euro artean dago salgai. Musika Gertu izeneko zirkloan emango dute kontzertua Garik eta Maldanberak; formatu txikiko saio horretan 80 lagun baino

ezin izango dira sartu. Horientzat eskainiko du taldeak *Estutu* disko berriaren zuzeneko emanaldia.

Maldanberan, Garik ondoan dauka eskarmentu handiko musikariak: Miguel Moyano gitarra-joleaz gainera, Natxo Beltran bateria-jolea (Atom Rhumba) eta Ekaitz Hernandez baxu-jolea (Split 77), hain zuzen ere. Abeslari legazpiarrak sendo egiten

du aurrera, metatutako esperientziari esker. Hertzainak taldearen aroa aspaldi amaitu zen; nostalgiarako leku barik, une guztiez gozatu gura du, eta zuzeneko emanaldietara doazenak gozarazi. Diotenez, Garik orain arte egin duen diskorik helduena da *Estutu*. We Are Standard (WAS) talde getxoziararen gitarrista eta konpositore Jon Agirrezabalagak ekoitzi du. ◀

GETXO

Urtarrilaren akaburako hainbat jarduera prest dauzka Garrobik

Zapatu honetarako, urtarrilak 21, argazki-ukituak egiteko tailerra antolatatu Getxoko Artisten Harrobiak; hitzordua 09:15ean ipini dute, Algortako kultur etxean. Urtarrilaren 28an, ostera, *La maldición de Mona Lisa* dokumentalaren proiektzioa egongo da, 21:00etan, Algortako Getxo tabernan. ◀

izen-ematea: info@garrobi.com



MUSIKA

URTARRILAK 19, EGUENA

Malakate Murphy Lawyers

20:00 | **Kandilejas taberna (Romo) | Getxo**
Getxon Zuzenean edo Getxo Live! kontzertu-zirkuitua. Sarrera, doan.

URTARRILAK 21, ZAPATUA

Argixe

19:30 | **Areetako musika eskola | Getxo**

Neguko Bidaia kontzertu-zirkloaren 9. edizioa. Klarinete, txelo eta piano hirukoteak Brahms eta Piazzollaren obrak interpretatuko ditu. Kontzertuaren ostean, entzuleen eta musikariren arteko berbaldia egongo da, gaztelaniaz. Sarrera: 5 euro (ikasleentzat 3 euro).



URDULIZ

A Contra Blues taldeak kontzertua emango du zapatuan

Gaur egun Europan musika estilo hori jorratzen duten taldeen artean onenetarikoa da A Contra Blues; Bartzelonako bandak European Blues Challenge sariketa irabazi zuen, 2014an. Zapatu honetan, urtarrilak 21, Urdulizko kultur etxean joko du. Emanaldia gaueko 09:00etan hasiko da; sarretrak 6 euroan daude salgai. ◀

© A CONTRA BLUES

URTARRILAK 24, MARTITZENA

El abrazo de la serpiente

20:00 | **Kultur Leioako entzungela | Leioa**
Perseo zineforuma. 12 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,50 euro.

BERBALDIAK

URTARRILAK 19, EGUENA

Euskara ikasten nabil. Erabili beharko nuke seme-alabekin?

16:45 | **Zipiriñe ikastetxea | Sopela**

Uribe Kostako Mankomunitateak eta bertoko gurasoen elkarrekin antolatuta. Gurasoentzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

Desbloques emocionales

GETXO

Iruña-Veleiaz berba egingo dute, Algotortan

Gaur, eguena, *Euskeraren jatorria*, *Iruña-Veleia eta euskalduntze berantiarra* izenburuko berbaldiaz gozatzeko aukera egongo da, Algotortako Azebarri kulturalgunean. Ekitaldia 19:30ean izango da; sarrera, doan. ◀

BARRIKA

Aratusteak prestatzen hasiko dira umeak

Urtarrilaren 20an eta 27an, inauteriak antolatzeko tailerrak eskainiko ditu Barrikako Udal Liburutegiak; 6 eta 12 urte arteko umeek parte har dezakete. Saiioak 17:30ean izango dira, liburutegian. ◀
izen-ematea: liburutegia@barrika.net

GORLIZ

Aurtengo jaietarako bilerara deitu dute

Urtarrilaren 24an, martitzena, aurtengo jaiak antolatzeko bilera egingo dute, kultur etxean, 18:00etatik aurrera; udako ospakizunak prestatzen lagunduko gura duten denek edukiko dute horretan parte hartzeko aukera. ◀

Impromptu

20:00 Astrabuduako kultur etxea | Erandio
Naroa Intxausti soprano bilbotarrak abestuko du eurakaz; Brahmsen obrak interpretatuko dituzte. Sarrera: 3 euro.

ANTZERKIA

URTARRILAK 19, EGUENA

El hacedor de problemas

18:00 | Algotortako haur-liburutegia | Getxo
Ipuinaren ordua. Virginia Imazegaz. 4 eta 8 urte arteko umeentzat. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Desentxufatuak

20:00 | Altzagako lehengo azokan | Erandio
Antzerki Eguenak izeneko jardunaldiak. Tarteetan Teatroa taldeagaz. Euskaraz. Sarrera, doan.

URTARRILAK 21, ZAPATUA

The paper bag princess

18:30 | Sertutxena eraikina | Gorliz
Cataplina ipuin-kontalariagaz. Ingelesean. Doan.

ZINEMA

URTARRILAK 20, BARIKUA

Cien años de perdón

21:00 | Areetako musika-eskola | Getxo
Zine-kluba. 12 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,90 euro.

URTARRILAK 21, ZAPATUA

Vaiana

17:30 | Kultur Leioako entzungela | Leioa
Denontzako animazio-filma. Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro. Urtarrilaren 22an ere emango dute, ordu berean.

El becario

19:00 | Berango Antzokia | Berango
Denontzat. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Hasta el último hombre

20:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa
Filma 16 urtetik gorakoentzat da. Gaztelaniaz. Sarrera: 4,50 euro (klusleen eguna: 3,5 euro). Urtarrilaren 22an eta 23an ere emango dute, ordu berean.

URTARRILAK 22, DOMEKA

Zootrópolis

17:00 | Areetako musika-eskola | Getxo
Igandeko Haur Zinea. Animaziozko filma, denontzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,10 euro.

Yoko eta lagunak

18:00 | Berango Antzokia | Berango
Animazio-filma, umeentzat. Euskaraz. Doan.

para una sociedad nueva

18:00 | Landa doktorea, 3 | Sopela
Izartu emakumeen elkarateak antolatuta. Nuria Sorli psikologoagaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Sopelako Irakurle Kluba

19:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela
Miren Gorrotxategiren *33 ezki!* (2016. Elkar) liburua berba egingo dute. Euskaraz. Doan.

Vascos, burgaleses y riojanos, primeros hermanos liburuaren aurkezpena

19:00 | Algotortako kultur etxea | Getxo
Alberto Díez idazleagaz. Gaztelaniaz. Doan.

Literatur berbaldia

19:45 | Algotortako Kasinoa | Getxo
Getxoko Kultur Etxearen Sormen-idazketa tailerrak antolatuta. Tawni O'Dell idazlearen *Caminos ocultos* liburua berba egingo dute. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

URTARRILAK 20, BARIKUA

Familia y cuidados: el rol de la mujer

18:00 | San Agustín plaza, 1 | Erandio
Erandioko Emakumeen Elkarateak antolatuta. Gaztelaniaz. Sarrera, doan. Horren ostean, luntxa egongo da.

DEIALDIAK

URTARRILAK 21, ZAPATUA

Ibarbengoako aparkalekuaren aurkako manifestazioa

12:00 | Telletxe plaza (Algotorta) | Getxo
Kanpaldia ere egiten dabiliza Tosuko landan.

ERAKUSKETAK

URTARRILAREN 25 ERA ARTE

Naturaleza urbana

Algotortako kultur etxea | Getxo
Jakue Barearen olioak. Astelehenetik zapatara. Sarrera, doan.

URTARRILAREN 29 RA ARTE

Helmugak

Torrene aretoa (Algotorta) | Getxo
Endika Basaguren berangoztarren margo-lanak. Astelehenetik domekara. Doan.

URTARRILAREN 31 RA ARTE

Dos miradas

13:00-21:00 | Aixerrota | Getxo
Jose Mari Pérez Alonsoren eta Leticia Gonzálezen urmargoak. Sarrera, doan.



ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO
TESTU LABURREN
V. LEHIAKETAREN ERAKUSKETA

argihizkia

Urtarrilaren 27ra arte
Josu Murueta kultur etxean (Erandio)





Gaur abiatuko dituzte Antzerki Eguenak jardunaldiak *Desentxufatuak* (Tartean teatroa) lanagaz. © TARTEAN TEATROA

Egitaraua

Urtarrilak 19, eguena

Desentxufatuak (Tartean teatroa).

Otsailak 16, eguena

Jainko basatia (Txalo Produksioak).

Martxoak 16, eguena

Francoren bilobari gutuna (Artedrama).

Apirilak 27, eguena

Atte hil aurretik (Beheko Larraine).

Maiatzak 18, eguena

FaKiu (ATX teatro).

Antzerki Eguenak jardunaldietako emanaldi denak 20:00etan izango dira, Alzagako azoka zaharrean. Euskaraz; sarrera, doan.



Tradizioa

JOKÍN
DE PEDRO
Idazlea

Neguko solstizioko opari ekarleen lehia

Belaunaldiz belaunaldi transmititzen den kultur ondarea eta jokaera-ereduen multzoa ei da tradizioa. Aipaturiko multzo horretan sartzen omen dira, besteak beste, kondaira, ohitura, balore-eskala, erlijio-sinesmenak, literatura eta hizkuntza. Zenbat gauza sartzen diren, kontu egizu, tradizio deitzen dugun zaku horretan! Zakua esan dut? Olentzero etorri zait, ba, akordura. Beraren inguruko tradizioa eta berrikuntzak aztertzea interesgarria izan daiteke.

Kronologikoki azterturik, etnologoak bat datoz tradizio paganoan kokatzen direla neguko solstizioaren inguruko usadioak: suaren eta uraren presentzia, eguna luzatzeko eta gaua murrizteko aldarria...; bestalde, mitologiaren aztarnak daude: Olentzero lehenago jentila zen, zenbait ipuin zaharren arabera. Geroago, erlijio kristauaren eragina azaltzen da: Olentzero Kixmiren iragarle, hau da, Jesukristoren etorreraren mezulari agertuko zaigu. Eta hor, bidean, geroago, Errege Magoen tradizio opari-ekarle kontsumistarekin topo egiten du mito zaharrak. Zer egiten du(gu)? Ikazkinaren zakuan opariak sartu. Norberak azter beza tradizioaren bilakaeraren zilegitasun edo egokitasuna.

Baina hor ez da amaitzen: Santa Claus beste opari ekarle batekin lehian sartzen da, ez hainbeste lehia estrategikoan nola itxurazkoan; izan ere, bizarri jantzi zurri-gorriak itxura dotorea dauka, garbia eta txukuna. Olentzero, berriz, ikazkina da: atorra zikina, abarkak oinetan, pipa hortzetan, zurruteroa, kedarrez belztua eta tripontzia. Leku batzuetan hasi dira haren itxura dotoretzen eta garbitzen, Coca-Colaren kanpaina batek San Nikolasen janzkera uniformatu zuen itxuraren parekoaz hornitu nahian. Zein Olentzero gura dugu? ◀

Antzerki-saioak, euskaraz

Antzerki Eguenak jardunaldien bidez, hilean behin, euskaraz egindako antzezlan batez gozatzeko aukera emango du Erandioko Udalak; sarrera, doakoa.

Urtarril eta maiatzaren artean, hilean behin, euskaraz egindako antzezlan batez gozatzeko aukera emango du Erandioko Udaleko Euskara Zerbitzuak. Saio denak 20:00etan izango dira, Alzagako lehengo azokan; sarrera, doakoa. Hala, gaur izango da Antzerki Eguenak jardunaldien lehenengo ikuskizuna, urtarrilaren 19an;

Tartean taldeak *Desentxufatuak* antzezlan taularatuko du.

Horretan, Mikel Martínezek eta Patxo Telleriak euskaltegian 40 urte da-roaten euskara-ikasle bi izango dira. Ikusleen artean agertuko dira euren frustrazio, desio eta kexak adierazteko. Maitasun-istoriorik ederrenetan legez, euskara maite eta gorroto dute. Gorroto dutelako maite dute; maite

dutelako, gorroto. Tartean antzerki-taldeko kideen berbetan, «*Desentxufatuak* katarsi ariketa bat da. Euskara-ikasleentzat bada, jakina, euren isla (desitxuratua) ikusten dutelako eszenatokian. Baina, euskara-ikasle ez direnentzat ere bada». Martínezek eta Telleriak diotenez, *Euskera sencilloaren manifestoa* eta *Larruaitzeta* antzezlanen eszenarik onenak osatuta dago. Euren esanetan, «artifizio handirik gabe agertu nahi dugu jendaurrean, aurreko ikuskizunen eszenarik arrakastatsuen baliatuz, kalitate kontzentratuta eskaintzeko». ◀

Hitza emanda



Berria

Urtarrilak 14,
Bilbon aldarria;
aspaldi-aspalditik
zain dago herria...
Ea behingoz datorren
berri bat berria,
hain zuzen ere denok
nahi dugun berria!



JONE
URÍA
ALBIZURI
Bertsolari getxoztarra

HIRUKAK proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertso bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.



Hitzen Ahairea ikastaroa, Bizarra Lepoanen ekimenez

Hurrengo hilabeteetarako, *Hitzen Ahairea*, zeri kantatzen diogu euskaldunok? izeneko ikastaroa antolatuko du Getxo udalerriko Bizarra Lepoan euskara-elkarteak. Hala, otsailaren 1etik martxoaren 10era bitartean, horixe bera aztertuko dute Gotzon Barandiaran euskal idazle eta kultur gile larrabetzuarragaz zein Rafa Rueda euskal abeslari eta gitarra-jole mungiaragaz. Ikastaroak sei aste iraungo du; bi orduko saioak izango dira, eguazteno, 19:00etatik 21:00etara, Algortako kultur etxean, (adi! martxoaren 10a eguena da). Salneurriari dagokionez, Bizarra Lepoanen bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte; bazkide ez direnek, 15 euro. Izena emateko azken eguna urtarrilaren 21a izango da, zapatua. «Ordainketa egin da ez duenak, ezin izango du ikastaroan parte hartu», ohartarazi dutenez. Ikastaroa kontu korrante bidez ordaintzea beharrezkoa da. ◀


info+: www.bizarralepoan.eus

ArgiHizkiak ikusteko azken aukera, Astrabuduan



argihizkiak.com

Bosgarren ArgiHizkiak lehiaketa-oren 10 argazkiak eta horietan oinarritutako euskarazko 40 testu labur onenak batzen dituen erakusketaz gozatzeko azken aukera egongo da, Astrabuduan; urtarrilaren 27ra arte bisitatu ahal izango da, Josu Murueta kultur etxean. Ordutegiari dagokionez, astegunetan egongo da zabalik, 08:00etatik 21:00etara; sarrera, doan. Egizu elkarteak eta HIRUKA komunikazio-taldeak antolatu zuten sariketa, eskualdeko hainbat udal eta elkarte-gaz elkarlanean. ◀



LEIOA 2017

bost egunez
euskal sorkuntzaz
gozatzeko parada



OTSAILAK 1 / ASTEAZKENA

20:00 "AMORANTE"
Musika

Doan



OTSAILAK 2 / OSTEAGUNA

20:30 "ATTE HIL AURRETIK"
Beheko Larraine

Antzerkia - 3 / 6 €



OTSAILAK 3 / OSTIRALA

20:30 "HARIAK"
Ertza Dantza

Dantza - 5 / 10 €



OTSAILAK 4 / LARUNBATA

20:30 "FAKIU"
Atx Teatroa

Antzerkia - 3 / 6 €



22:00 "SHANE MCGOWANEN GIBELA"
Unai Elorriaga & Gibelurdinek

Musika - 4 / 8 €



OTSAILAK 5 / IGANDEA

19:00 "RUPER ORDORIKA"
Musika - 6 / 12 €



BONOA: 30 € / INAUGURAZIO
KONTZERTUA, 5 IKUSKIZUN
ETA MARATILA KIT BAT OPARI.

ARTEDRAMA / KULTUR LEIOA
WWW.KULTURLEIOA.COM

«Pentsatzen dudan bezala kantatu nahi dut»

Jone Uria Albizurik egundoko postua lortu zuen pasa den Bizkaiko Bertsolari Txapelketan. Halere, hori ez da izan bertsolari eta matematikari algortarrak azken hilotan bizi izan duen erronka bakarra: Matematika Txokoa ekimena abian ipini du eta doktoretzari ekin dio. Izan ere, berbetarako eta zenbakietarako trebea izateaz gainera, inspirazioak lanean harrapatu ohi du.



IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA

Hirugarren postua lortu zenuen, pasa den abenduan, Bizkaiko Txapelketako finalean, 26 urtegez. Pozik zaude saioagaz eta emaitzagaz?

Finalarekin pozik nago, batez ere bukaera aldera gusturago geratu nintzen hasieran baino, eta horrek zapore ona utzi zidan. Pena daukat hasieran ofizioetan gehiegi asmatu ez izana. Beti izan dira nire puntu indartsuena eta egun horretan ez nuen bereziki indartsu hasi. Baina bai, behintzat bukaerarekin pozik, eta sentsazioekin pozik; postuarekin zer esanik ez, orain arte lortu dudak posturik onena da, baina pena apur bat eman zidan hortxe gelditu nintzela, puntu bakarrera buruz burukotik eta buruz burukoa zer den jakiteko gogo baneukala. Baina, bueno, hurrengoetarako, gogo gehiagorekin...

Zure bosgarren Bizkaiko Txapelketa izan da. 2008an ez zinen finalean sartu, eta 5., 4., 6., eta 3. geratu zara ordutik hona. Patroi horren hurrengo zenbakia zein litzateke?

Uste dut 7. tokatzen dela. Baina espero dut patriorik ez egotea, eta postu berriak probatzekotan, goiko muturrekoak probatzea eta ez bukaerakoak.

Joko-makinetan, bazegoen saria finaleko irabazlea asmatuz gero. Etxahun Lekueren aldeko apustua, euro bakoitzeko 1,85 euroan ordaintzen zen; Xabat Gallebeitiaren aldekoa, 51 euroan; eta zure aldekoa, 3 euroan. Zer deritzozu horri?

Imajinatzen dut jendea batez ere gidatuko zela fi-

nalerdietan geneukan puntuazioaren arabera. Eta Etxahun sartu zen puntu gehienekin, gero ni, eta Xabat nahiko atzean sartu zen. Baina finalerdiak entzunda, nik ez nuke esango Xabaten «prezioa» hori izan beharko litzatekeenik; niri iruditu zitzaidan oso ondo ibili zela Basauriko finalaurrekoan: nik saioa irabazteko hautagaien artean neukan. Gero ez zuen

“**Esango nuke aurrekoetan baino gutxiago landu ditudala errimak azken txapelketarako; alperrago ibili naiz**”

irabazi, baina uste dut erakutsi zuela duela bi urte baino prestatuago edo lan gehiago eginda zetorrela, eta ofizioetan freskura handia ekarri eta bakarka lan txukunak egiteko kapaz zela. Xabatena seguru aski sorpresa izan zen jende askorentzat; bere bigarren finala zen eta horrek emango zion beste askatasun bat, eta presio gutxiagorekin ibiltzeko aukera. Ondo merezita sartu zen [buruz burukoan]; eta hurrengoan gutxiago ordainduko da bere alde!

Uribe Kostako txapela birritan lortu duzu: 2010ean eta 2016an. Txapel hori jantzi eta gerora Bizkaikoa

lortu dute Xabi Payak, Fredi Paiak eta Etxahun Lekue. Lagungarria da eskualdeko txapela?

Oso desberdin bizi izan ditut bi txapelak; bata, Bizkaikoaren sailkapen-faserako beharrezkoa zen, besterik gabe; bestea, iazkoa, asko gozatu nuen: gehiago izan zen gure arteko giroa sendotzeko. Iruditzen zait formatua oso aberasgarria dela eskualderako eta ez nuke konparatuko beste txapelekin. Fredik, Xabik eta Etxahunek irabazi zituztenak ere eskualdekakoak izan ziren eta nik sailkapen faseko bigarren bat lortzeko aukera eduki ez badut, oso goiz sartu nintzelako finaletan da. Baina pozten naiz orain beste lagun-giro horretan berreskuratu dugula eskualdeko txapelketa; oso gustura kantatu nuen.

Bizkaieraren alde egin dute horiek txapela lortu dutenean. Zure kasuan, batueraren alde egin duzu. Ezberdintasunik ikusten duzu hor?

Uste dut, bere etxeko euskara den neurrian, Etxahunek natural egiten duela bizkaieraz. Egia da, Xabik eta Fredik esfortzu bat egin dutela bizkaiera berenganatzen eta bertsokera aldatzen, errimak ere ezberdin landu behar direlako bizkaieraz kantatu ahal izateko. Beraiek esfortzu hori egin dute, baina, nik euskara batua nire txikitako euskara bezala sentitzen dut, eta ez daukat beste munduko konplexurik horrekin. Horrenbestez, ez dut uste aldatu behar dudarik. Pentsatzen dudak bezala kantatu nahi dut, eta horretarako, uste dut, errazago egingo zaidala pentsatzen dudak hizkuntzan kantatzen badut. Be-



raiek egin zuten hautu bat da hizkuntzaren hori, nik ez dut egin eta ez dut egingo.

Ondo dago txapela Etxahunen buruan?

Bai, noski. Edozeinen buruan ondo dago txapela, eta are gehiago, hainbeste urtetan, hor ibili den baten buruan, zer esanik ez. Berari entzun diot ez zaiola gustatzen ibilbide batengatik merezi zuela esatearena; azkenean, txapela egun batean janzten delako. Baina, egia da, denok onartuta daukagula luzaroan behatz puntekin ukitzen ibili den horrek merezi duela egunen batean txapela janztea. Gainera, seguru nago ondo eramango duela datozen bi urteetan.

Zure buruan ere ez litzateke txarto geldituko, ezta? Ez, ez, noski. Beste seien buruan ere ez.

Gaztetxo sartu zinen bertsolari-eskolan.

Ikastolan idatziz eta ibiltzen ginen, eta hor bederatzirekin hasi nintzen; baina, hona, bertso-eskolara, bat-bateko taldera, 12 urteren bueltan.

Zelakoa izan zen heziketa-prozesua?

Hasieran kosta egiten zitzaidan, Algortako San Nikolas ikastolan lagunekin eta betidanik ezagutzen nuen jendearekin nenbilen; hemen [ALBEn], ordea, dena zen berria. Itxaso ezagutzen nuen apur bat ikastolatik, baina beste denak ez, eta ni ere apur bat lotsatia naizenez, edo nintzenez, edo biak, ez dakit, hasieran kosta egin zitzaidan. Gainera, besteek alde

aurretik bazekiten jada bat-batean eta hasieran nik apur bat flipatu nuen: «baina zer? Jada bota behar da bertsoa?». Handik gutxira lagun kuadrilla polita egin genuen eta geroztik hemen jarraitzen dugu gehienok. Ez da seinale txarra.

Fredi izan duzu irakasle, ezta?

Bai. Tarteren batean ere Xabier etortzen zen, eta Nahikarirekin ere ibili ginen, baina bai, irakasle nagusi Fredi. Jon Lopategi ere bolada baten etortzen zen, eta orduan astean bitan egiten genuen: bat Fredirekin eta bestea Lopategirekin, baina batez ere, urte gehienetan Fredi izan zen gure irakasle, bai. Beragaz oso ondo ibili naiz. Beti esan izan dut Fredik irakasten alde on bat zeukala: kantarazi egiten zigun eta berdion bertsoa ez bazen perfektua, ez zen akatsak ateratzen hasten, baizik eta «ondo», «oso ondo» edo, askoz jota, «bale» esaten zigun, baina ez zen tematzen «hemen esan izan bazenu horrela...». Adin horretarako oso garrantzitsua da errodajea hartzea: kantatu, kantatu eta kantatu. Bera gehiago tematzen zen denborarekin. Adibidez, «30 segundo» eta 30 segundotan hasi behar ginen; horrek asko lagundu zigun bolada horretan. Gero bakoitzak perfektionatu behar du bere bertsoa, baina behintzat errodajea hartzeko ondo etorri zitzaigun.

ALBEn ikasle ez ezik, irakasle ere izan zara. Zelan moldatu zara zeregin horretan? Eta zelan ikusi dituzu zure ikasle bertsolari gaztetxoak?

Orain, jada, ez nabil, ordutegiz-eta estu nabilelako; baina, ibili nintzenean, saiatzen nintzen nik jasotakoa errepikatzen eta ez gehiegi traumatizatzen gaztetxoak bertso perfektua egitearekin. Gainera, bertso perfektua egin nahi bada, osorik pentsatutakoa dela ematen du, eta orduan bat-batekotasuna galtzen da. Denboran gehiago tematzen nintzen; saiatu naiz jaso dudana erakusten. Gero, egia da, oso adin ezberdinetako gazteekin egon izan naizela. Hasieran, oso txikiak ziren eta, orduan, asko kostatzen zitzaient jartzea bera ere. Geroago, Imanol [neba] eta horiek 16-18 urte zeuzkatenean, beraiekin ibili nintzen, eta hor, jada, beste erritmo bat zen; bageneukan gaitasuna beste gauza batzuk lantzeko, desberdina zen. Orain, oso gaztetxoak izan nituen Paule [Loizaga] eta enparauekin entrenatzen ibiltzen gara, 16-18 urte dituztenean, eta beste gauza bat da. Orain, nik gehiago gozatzen dut jada kantuan dakitenekin, bertsoan zerotik hasi eta irakatsi behar zaienekin baino.

Zelan prestatu zinen txapelketarako?

Apur bat betiko moduan. Bertso-eskolan bildu ginen eskolako lagunok, astean pare bat aldiz. Gaiak nondik joango ziren pentsatzen ere saiatu ginen: ahalik eta gehien egunkariak irakurriz, irratia entzunez... Egunean egoten saiatzen; gauzei buruzko iritziak aztertzen eta paperean errimak egiten ibili naiz. Baina, esango nuke beste batzuetan baino gutxiago ibili naizela horretan. Alperago ibili naiz.

Txapelketaren prestaketa doktoretzako bigarren urteagaz eta Matematika Txokoa ekimenaren antolaketa bateratu duzu. Erraza izan da?

Momentu batzuetan ematen zuen ez nintzela denera helduko, baina orokorrean ez zait oso pisutsua egin. Doktoretzan, nire lana den neurrian, egunean sartzen ditut 6-8 ordu, baina arratsaldeak libre geratzen zaizkit, eta saiatzen naiz libre hartzen ia beti. Tesia nahiko erdi-bideratuta daukadanez, lasaiago hartu dut hilabete hauetan. Eta Matematika Txokoarena, bakoitzak apur bat bere atalaz arduratzen garenez, nik bertso-saio matematikoa prestatzen hartu nuen ardura handiena eta ez zait hain pisutsua egin. Ikasketeeekin egin behar genuen kontu bat justu urte bukaeran eta hor elkartu zitzaizkidan finalaurreko-

“ Nire txikitako euskara bezala sentitzen dut euskara batua, eta ez daukat beste munduko konplexurik horrekin ”

rekin eta hor ibili nintzen apur bat estresatuago, baina beste munduko estresik gabe.

Noizko espero duzu tesia amaitzea? Zertan datza? Urri-azarorako. Tesiaren gaia hau da: simetria zehatz batzuen propietate zehatz batzuk aztertzea-edo, etengabe errepikatzen den irudi fraktal batean; aljibraren barruko talde-teoria nahiko abstraktua da.

Aurten Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa egingo da. Parte hartuko duzu?

Bai, noski.



Getxo Sasoi Sasoian Kirolaren Galan hamaika sari eman zuten.

Castroviejo, Getxoko onena, egon barik ere

Jonathan Castroviejo txirrindularia hautatu zuten Getxoko iazko kirolaririk onena, Getxo Sasoi Sasoian Sarien X. Galan, Faduran. Itzubaltzetarra izan da Europako txapelduna, munduko hirugarrena eta Olinpiar Jokoetako laugarrena.

Jonathan Castroviejo txirrindulariak ez zuen Faduran egoterik izan, eta Ernesto Castroviejo bere aitak jaso zuen garaikurra.

Getxo Sasoi Sasoian sariketaren epaimahaiak Movistar Team talde nafarraren txirrindularia lehenetsi zuen, beste hautagai askoren artean: Irati Urbaneja eta Mercedes Aristegui tenis-jokalariak, Ekaitz Pinedo eta Xabier Pereda karatekak eta Bàrbara Pla errugbilaria. Kirolari horiek banakako aintzatespenak jaso zituzten. Epaimahaia ondokoek osatu zuten: Getxo Kirolak erakundeko eta Getxoko Udaleko teknikoez zein kirolagaz lotutako udalerriko hainbat pertsonak.

Castroviejok hasi ditu daborduko denboraldi-aurreko entrenamenduak, Getxotik urrun; horregatik, ezin izan zen galan egon. Halere, presente egon zen: bideo bat grabatu zuen Getxotik joan aurretik, eta, horren bitartez, eskerrak eman zizkien bere sendikoei eta saria eman diotenei. Modu berean,

kirol-alorrean bizi izan duen urte ona aipatu zuen txirrindulari itzubaltzetzarrak, eta, 2017ari begirako bere helburu nagusiak laburbildu zituen: «kirol-maila hobetzea, Munduko Txapelketa irabazteko; astebeteko itzultetan parte hartzea, berbarako, Tirreno-Adriatikon; eta Nairo Quintana taldekideari Tourra irabazten laguntzea».

Galan, taldekako hainbat sari ere eman zituzten: Getxo Kirol Berriak saria jaso zuten Getxo Kirol Klubak eta

Jolasetako tenis-taldeak, hurrenez hurren gizonezkoen gazte-mailan eta emakumezkoen gazte-mailan. Senior mailan, ostera, aintzatespenak Raspas arraun-elkarteko emakumeentzat eta Fadura Tenis Klubeko gizonezkoentzat izan ziren. Sari bereziei dagokienez, Aitzindaria Saria lortu zuen Julio de Solaun hockeyko nazioarteko jokalaririk, kirolari mitikoa izateagatik; Solaunek Joko Olinpiko bitan parte hartu zuen, eta, gainera, munduko txapeldunorde

izan zen 1971n. Agustín López de Letona judoko entrenatzailearentzat izan zen Kiroltasuna Saria. Getxo Berrituz Saria Igeretxe Hotelak jaso zuen, bere kirol-eskaintzategatik.

Sari olinpikoak

Halaber, emakumezkoen kirola sustatzen egindako lana ere aitortu zioten Getxo Igeriketa Bolue Kirol Elkarteari, Berdintasuna indartuz Saria emanaz. Ezgaitasunen bat duten pertsonakaz egindako lana Marka Hautsiz Saria-gaz eskertu zioten Hockey Plus Getxo taldeari. Azkenengo talde-saria Elenor enpresak jaso zuen: Arenas Futbol Klubaren babesle izateagatik eman zioten Getxo Zabala Saria.

Sari-banaketan beste sari bat ere banatu zitzaion Bàrbara Pla, Rocío Ibarra, María López de Eguilaz, Asier García eta Jonathan Castroviejo berari ere, Rio de Janeiroko Joko Olinpikoe-tan izandako parte-hartzeagatik.

info+: Hiruka.eus/Kirolak

Kirol-kazetarien iritziz ere bai

Itzubaltzetako txirrindulariak Bizkaiko kirolari onenaren saria ere eskuratu zuen Bizkaiko Kirol Galan, abenduan. Sari hori Bizkaiko Kirol Pentsaren Elkarteak ematen du urtero, elkarteko bazkideen botoen arabera. Aurreko urtean Mikel Urrutikoetxea pilotariak lortu zuen. Aurtentzen, itzubaltzetzarrak lortu ditu boto

gehien; lehiakide izan ditu beste lau kirolari hauek: Omar Fraile txirrindularia, Aitzol Atutxa aizkolaria, Asier García eskubaloi-jokalaria getxoztarra eta Mikel Urrutikoetxea pilotaria, saria errepikatzeko aukera zeukana. Bestalde, Erandioko Goiherri sokatira-taldea eta Lucía de la Puerta tenislari getxoztarra ere saritu zituzten. ◀

saiazgetaria
HOTELA
Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.siazgetaria.com



hiruka zaitez!
Urtean **35€** baino ez
Trukean: zozketak, sariak ia astero, astekaria eguaztenero...

Askartzak, waterpoloko finalean



Askartzak irabazi zuen Euskal Herriko Kopa iaz. © ASKARTZA IGERIKETA ELKARTEA

Euskal Herriko Waterpolo Koparen lauko finalak jokatu dira datorren zapatuan, urtarrilak 21, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren igerilekuetan, Iruñean. Uribe Kostatik Claret Askartzako emakumezkoen taldea da sailkatu den bakarra; leioztarrak iazko txapelkunak izateaz gainera aurtengo kopa altzatzeko faboritoen artekoak ere badira. Halere, Leioako izurdeek ez dute izango iaz euren alde jokatu zuen faktore bat: ez dute etxean jokatu. Horren ordez, 9802 waterpolo-talde nafarraren igerilekuan lehiatu dira, arerio nagusiaren domeinuan, alegia. Izan ere, finalurrekoa talde unibertsitarioaren aurkako norgehiagoka izango

da; partida 14:10ean hasiko da. Dema hori gaudituko balute, Askartzakoek aurre egin beharko diote beste finalurrekoaren irabazleari: Eibarreko taldeari ala Bilbokoari.

Gizonezkoiei dagokienez, klub berberak lehiatu dira kopa eskuratzeko asmoz, salbuespen batez: Askartzak beharrez, Bidasoak jokatu du.

Uribe Kostako taldeak

Euskal Herriko Kopa pasa den urtarrilaren 7an abiatu zen, emakumezkoen 8 taldegaz eta gizonezkoen beste 14 taldegaz. Getxok, Leioak eta Askartzak modalitate bietan parte hartu zuten. Final laurdenetara denak heldu ziren, gizonezkoen Getxo izan ezik. ◀

Abrako Gizarte Saria abiatu dute daborduko

Aurtengo bela-estropaden egitarau zabala abiarazi zuen pasa den aste-akabuan Abrako Itsas Errege Klubak. Horretarako, Gizarte Saria martxan ipini zuen gurutzantziatzat eta J80 ontzientzat, hotzari aurre eginez. Lehenengo mailan nagusitu zi-

ren Juan Valdiviaren *Gaitero*, AB modalitatean, eta Javier Sanchidriänen *Kantarepe Iru*, C mailan. Atzerago geratu ziren Mauricio Guibertzen *Akelarre* (AB) eta Gonzalo Arnalen *Lasai* (C). Gizarte Sarian beste estropada bi egongo dira, azkena otsailaren 11n. ◀



Kantarepe Iru ontziak abantaila hartu du lehenengo estropadan. © ABRAKO ITSAS ERREGE KLUBA

Garazi Sánchezek irabazi du Surf Zirkuitua

Garaipen bikoitza lortu zuen Garazi Sánchez surflari getxoztarrak pasa den abenduaren 17an. Mundakako ezker olatuan surflaririk onena izan zen, eta, hala, Euskal Herriko Surf Zirkuitua bereganatu zuen. Aurretik, Sopelako eta Getariako saioak ere irabazi zituen getxoztarrak. Emakumezkoen finalean, hiru metroko olatuetan borrokatu behar izan zuten lau finalistek. Zirkuituaren sailkapeneko buru Janire González-Etxabarriren eta Garazi Sánchez bigarrenaren arteko distantzia 25 puntukoa zen uretaratu aurretik. Halere, getxoztarrak ez zuen arazorik izan pro-



Sánchez, Getarian. © JON ASPURU - EHSF

bako lehenengo postua lortu eta mila puntu ziurtatzeko. Peña Txuri taldeko Sara Urresti sopeloztarrak zazpigarren amaitu zuen sailkapen orokorrean, Ainara Aymategaz berdinduta. ◀

info+: Hiruka.eus/Kirolak

Surfing The Basque Country liburua, kalean

Surfing *The Basque Country* liburua argitaratu du Javier Amezagak, 35. aldizkariko zuzendaria. Amezagak urtebete eman du lan hori egiten, eta emaitza ikusgarria da. Testuetan (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez) eta argazkietan, surfaren eta euskal kostaldearen eboluzioa ikus daiteke, Arenatik Biarritzera, eta 1960tik gaur arte. Leku bakoitzeko «tribuk» erretratatu ditu eta surfaren inguruko sorkuntzari arreta ipini dio: surf-oholak, kartelak, aldizkariak, komikiak eta abarrak. Getxo eta Sopelako hainbat liburu-dendatan eros daiteke. ◀

info+: Surfing.com.es

Istripu larri batetik osatzen dabil Kepa Acero

Kepa Acero surflari algortarrak istripu bat izan zuen, urtarrilaren 2an, Mundakako barran surf egiten zebilenean. Oholetik erori zen eta «hondoaren kontra buruz jo» zuen. Hala, uretatik irteten ahalegindu zen, baina hanke eta besoek erantzuten ez ziotenez, okerrena espero izan zuen. Ondoren, kontzientzia galdu zuen. Lagunek atera zuten, eta, «agonia ordu batzuen ostean», Guruzetako ospitalera heldu zen. Bertan azaldu ziotenez, lepoa hautsita zuen, baina bizkar-muinean min hartu barik. Ebakuntza egin ondoren, alta eman zioten pasa den zapatuan; etxean dago daborduko. ◀

SARTU GURE
WEB BERRIAN
www.cianoplan.es
902 103 763

kartelgintza



inprimategia



kopisteria



Lointek eta Ugeraga, prest!



Alicia González eta Lucía González, Espainiako Ziklokros Txapelketan. © RFEC

Denboraldi berriko Sopela-Ugeraga eta Lointek Team txirrindulari-taldeak aurkeztuko dituzte datorren otsailaren 3an, barikuan. Ekitaldia, ohi den legez, Sopelako Kurtzio kultur etxean izango da, arrastiko 05:00etan.

Halere, nobedade gehienak ezaugarazi dituzte talde biek. Lointeki dagokionez, tropel laranjaen kide gehienak berberak izango dira, aurtent mailota zuriagoa izan arren. Hala, Dori Ruanok zuzendari izaten jarraituko du; era berean, orain arteko honako hamar txirrindulariek errepikatuko dute: Eider Merino, Alba Teruel, Alicia González, Lucía González, Anna Ramírez, Belén López, Cristina Martínez, Elisabet Llabrés, Empar Fèlix eta Gloria Rodríguez. Eureka batera, Ruano-ren agindupean egongo dira hiru txirrindulari berri hauek ere: Ziortza Isasi 21 urteko elorriarra, gaur egungo Euskadiko txapelduna erlojupekoan; Beatriu Gómez txirrindulari katalana, 29

urtekoa; eta Natalia Fischer 23 urteko andaluziarra. Fischer txirrindularitza profesionalera heldu berri da; aurretik triatloian eskarmentu handia eta garaipen bete zakua ditu. Txirrindularitza estreinatuz zenean, Castelloko Font de la Reinako erlojupeko igoera irabazi zuen. Horrenbestez, aurtengo taldea txikiagoa izango da, «baina aurreko urteetako maila mantenduko dugu», azaldu du Emilio Ramos Ugeraga klubeko presidentek. 13 txirrindulariek Flandrian (Belgika) abiatuko dute denboraldia, otsailaren 25ean, Omloop Het Nieuwsblad klasikan. Halere, erronka nagusizat izendatu dituzte Euskaldun Txapelketa, Euskal Emakumeen Bira eta Espainiako Kopa.

Sopela-Ugeraga

Sopela-Ugeragak hiru talde izango ditu denboraldi honetan, 23 urtez azpikoa gehituko baitzaie kadeteen eta gazteen taldeei. Denera, 22 txirrindulari izango dira, Miriam Gardachal buru. ◀

Lointek eta Elkar Kirolak, nagusi, ziklokrosean

Eskualdeko txirrindularitza-taldeen kirolariek hainbat podium lortu zituzten Espainiako Ziklokros Txapelketan, urte hasieran, Valentzian (Herralde Katalanak). Elite mailan, Lointeken lasterkaria den Alicia Gonzálezentzat izan zen urrezkoa, bere 23 urtez azpiko mailako azken urtean. Hirugarren eta bosgarren izan ziren bere ahizpa Lucía González eta Eider Merino, biak bere talde berekoak. Hala, 23 urtez azpikoetan, txapelketa Alicia Gonzálezentzat izan zen, eta bigarren lekua Alba Teruelentzat. Gazte-mailan, Saioa Gil Bioracer Elkar Kirolak taldeko kideak brontzea irabazi zuen. ◀

Xake-liburu bat itzuli du Ines Goñi neguriarrak

La clave de la victoria xake-liburua moldatu du Ines Goñi Alonso itzultzaileak. Neguri Langilekoak errusieratik gaztelaniara ekarri du liburua, Alexandra Bazhenova-Sorokina-gaz batera. Vladimir Tukmakov xake-maisu eta entrenatzaile ospetsuak idatzi du liburua. Informatikaren garaian, munduko xakelaririk onenak zelan prestatzen diren azaldu du. Iberoslavia hizkuntza-zerbitzuen eta aholkularitza-agentziaren zuzendaria da Goñi. Bere lan-hizkuntzak dira errusiera, ingelesa eta gaztelania, eta espezializatu da ingurumen-politikan, nazioarteko harremanetan, musikan eta xakean. ◀

Nerea Egurrola, bigarren, Bizkaiko trontzako lehian

Nerea Egurrola kirolari getxoztarra bigarren postuan geratu zen Trontzako Talde Mistoen Bizkaiko Promozio Txapelketan. Abenduan jokatu zuen finala, Arratzun, Santi Zubizarreta nabarniztarragaz batera. Arkaitz eta Batirtze Ispizua neba-arreba bermeotarrek denborarik onena egin eta txapela jantzi zuten. Egurrola eta Zubizarreta 42 segundora geratu ziren, eta beste 41 segundo atera zieten Karmele eta Jesus Gisasola mallabitarrei. Denera, sei bikotek parte hartu zuten finalean. Hamar zati ebaki behar izan zituzten, eta bermeotarrek lau minutu eta 28 segundotan burutu zuten lana. ◀



Díaz, eskuman. © ALTZAGA XAKE TALDEA

Ane Miren Díaz, xakelarien elitean

Ane Miren Díaz Herrero bigarren sailkatu da Bizkaiko Emakumezkoen Xake Txapelketan aurtengazte; gaztea Leioako Alzaga xake-taldeko jokalaria da. Lehiaketa urtarrilaren 8an jokatu zen, Bilboko Kale Barrian, Rey Ardid xake-taldearen egoitzan. Txapeldun berria Eihartze Buiza da, Arrigorriagako Endroke xake-taldekoa. ◀

JUAN MARI
Harategia · Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

Īnaki
Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3 Telletxe 1
94 430 23 45 94 460 27 41

Algorta

GAVRKO
1967

GIZONENTZAKO MODA

ZABALA, 9. ALGORTA
94 460 70 84

aldai

Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

Lehiaketa. Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?



Musiketan zikloa

Caronni ahizpen kontzerturako 3 sarrera bikoitz dauzkagu

Urtarrilak 29, domeka, 20:00;
BBK Aretoa (Bilbo)

Producciones Serranoren ekimenez, Caronni ahizpa bikiak eskainiko duten emanaldirako sarrerak zozkatuko ditugu. Gura badituzu, hilaren 24a baino lehenago, helarazi erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337



Sudokua

	5			4				
		4		2				7
9	7				6			
			6	3				9
		8						
2			9	8		1		
		5	7					3
7							1	6
	2	3				5		

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

9		6						7
		8						
	4			6				1
			5				7	
		2	8		4	6		
		4					3	2
4			7		9	5		
8		9	1					
				5				6

		8	9					
							7	
				5			9	
1		6		4	7	8		
		5		8			9	6
		9			7		3	
			4			1	6	3
4					1			
				5				

Soluzioak

8	7	6	9	5	2	1	3	4
2	2	5	1	8	9	6	7	8
3	9	1	6	4	7	2	8	5
1	3	7	2	5	6	9	8	7
9	6	2	3	8	1	5	7	4
5	8	4	7	6	9	3	2	1
6	1	8	5	9	2	7	3	4
2	2	9	8	7	3	1	5	6
7	5	3	2	1	6	8	4	9

9	6	7	5	8	3	2	1	4
3	2	4	9	7	1	6	5	8
1	8	5	6	2	4	3	9	7
2	3	1	2	6	9	7	8	5
6	5	9	7	1	8	2	4	3
7	2	8	2	3	5	1	6	9
8	1	2	3	9	6	5	7	4
5	9	6	1	4	7	8	3	2
4	7	3	8	5	2	9	1	6

2	7	5	8	6	1	3	2	9
9	1	2	5	3	7	6	8	4
3	8	6	2	9	4	5	1	7
5	3	1	7	8	6	2	9	4
7	9	4	1	5	2	8	6	3
6	2	8	3	4	9	1	7	5
8	5	7	9	1	3	2	4	6
1	2	9	6	2	5	7	3	8
2	6	3	4	7	8	9	5	1

Guardiako farmaziak, hilaren 19tik 25era

Barrika

ZULOAGA. Udaletxeko bidea, 2. 946 774 716. Martitzenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Berango

EGUIA. Sabino Arana kalea, 20. 946 680 360. Astegunetan, 09:00-22:00; domekan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

IRUSTA. Aitz-gane kalea, 1. 946 680 153. Barikuko 22:00etatik zapatuko 13:30ak arte.

Erandio

ARRUTIA. Obieta kalea, 15. ALTZAGA. 944 674 711. Astegunetan, 09:00-22:00.

BERASATEGUI. Tartanga kalea, 5. ALTZAGA. 944 671 429. Zapatuan, 09:00-14:00.

DIAZ. Etxegorri kalea, 3. ASTRABUDUA. 944 170 291. Zapatuan, 09:00-14:00.

GASTEARENA. Mezo, 24-26. ASTRABUDUA. 944 175 200. Aste-akabuan, 09:00-22:00.

TEIJELO. J. A. Agirre plaza, 8 bis. ERANDIOGOIKOA. 944 530 124. Zapatuan, 09:00-14:00.

Getxo

LOBO. Makaan etorbidea, 43. AIBOA. 944 308 286. Astelehenean, 09:00-22:00.

ALZOLA. Arene kalea, 4. ALGORTA. 944 306 570. Egunero, 22:00-09:00.

ARISTEGUI. Juan Bautista Zabala, 1. ALGORTA. 944 911 798. Astegunetan, 09:00-22:00.

BARRENECHEA. Alango, 7. ALGORTA. 944 600 043. Zapatuan, 09:00-22:00.

EZQUERRA. Ollarretxe, 27. ALGORTA. 944 303 328. Egunero, 09:00-22:00.

GALARZA. Aingeruaren etorbidea, 2. ALGORTA. 944 914 704. Astegunetan, 09:00-22:00.

JIMENEZ. Illetas, 12. ALGORTA. 944 301 352. Egunero, 09:00-22:00.

LOPEZ-LINARES. Kasune, 10. ALGORTA. 944 302 632. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

MORON. Bidezabal, 2. ALGORTA. 944 319 007. Astegunetan, 09:00-22:00.

SARRIA. Telletxe, 1. ALGORTA. 944 910 556. Astegunetan, 09:00-22:00.

ARRIOLA. Amaia, 29. AREETA. 944 805 328. Astegunetan, 09:00-22:00.

BAYANO. Ibaigane, 9. AREETA. 944 638 460. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

ELLACURIA. Andres Larrazabal kalea, 5. AREETA. 944 637 971. Astegunetan eta domekan, 09:00-22:00.

ANDRACA. Maidagan, 61. GETXO. 944 914 697. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

MONASTERIO. Gorbeia Mendia, 1. ITZUBALTZETA. 944 630 865. Astegunetan, 09:00-22:00.

NUÑEZ. Ibaiondo, 9. ITZUBALTZETA. 944 631 809. Astegunetan, 09:00-22:00.

Gorliz

ABURTO. Itxas-bide, 5. 946 775 452. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

ROMERO. Itxasbide, 20. 946 128 941. Zapatuan, 09:00-13:30.

Leioa

ANGULO. Kandelazubieta, 19. 944 645 185. Zapatuan, 09:00-22:00.

NARDIZ. Mendibile kalea, 1. Leioa. 944 800 484. Eguaztenean, 09:00-22:00.

SANCHEZ. Estartetxe kalea, 23. 944 800 802. Domekan, 09:00-22:00.

ORTEGA. Artaza, 8. Neguri-gane. 944 608 501. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

TIEMBLO. Sabino Arana kalea, 89. 944 803 191. Eguenean, 09:00-22:00.

ONA. Maiatzaren Bata, 4. PINUETA. 944 630 066. Astegunetan, 09:00-22:00.

SAN ANDRES. Larramendi plaza, 2. PINUETA. 946 572 295. Egunero, 09:00-22:00.

Lemoiz

GONZALEZ. Portubidea kalea, 7. ARMINTZA. 946 879 341. Zapatuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Sopela

BENITO. Etxebarri, 19. 946 766 013. Asteleheneko 22:00etatik, martitzeneko 09:00ak arte.

DOLARA. Sabino Arana, 28. 946 129 547. Astegunetan, 09:00-22:00.

ITURBE. Iparragirre, 3. 946 764 768. Astegunetan, 09:00-22:00; eguaztenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ERAZO. Loiola San Andres, 50. LARRABASTERRA. 946 762 363. Astegunetan, 09:00-22:00.

ZUMÁRREGA. Gatzarriñe, 6. LARRABASTERRA. 944 047 600. Astegunetan, 09:00-22:00.

Plentzia

ARAMBURU. Erribera, 20. 946 775 301. Astegunetan, 09:00-22:00; eta egueneko 22:00etatik barrikuko 09:00ak arte.

Urduliz

PARAMO. Aita Gotzon, 9. 946 764 507. Astegunetan, 09:00-22:00.



Parkinga, Tosun

Eztabaida askoren sortzailea

Laster abiatuko dituzte aparkalekua eraikitze obrak, Getxoko Ibarbengoako metro-geltokiaren ondoan. Hori dela-eta, proiektuaren kontrakoak erresistentzia-kanpaldi «mugagabeen» murgilduta daude.

IKER RINCON MORENO

Getxon, Andra Mari auzoan, Ibarbengoa metro-geltokiaren ondoan, hiru solairuko aparkalekua eraikitze obrak hasiko dira laster. Dragados S.A. eta Geotecnia y Cimientos S.A. (Geocisa) enpresek osatutako aldi baterako enpresa-elkarrekin egingo ditu lanak; izan ere, joan den azaroaren 24an esleitu zituen Eusko Jaurlaritzak, 2.991.076,88 euroan (BEZ barik). Horiek egiteko aurrekontua 4,8 milioi euroan (BEZ barik) atera zuen lehiaketan Jaurlaritzak, gerora aipatutako kopuru txikiagoan esleitu zituen. Hala, enpresa biek 12 hilabete izango dituzte obrak egiteko, esleipena sinatu eta hurrengo egunetik aurrera. Daborduko hilabete bi igaro dira orduetik, horrenbestez, 10 hilabete dituzte oraindino azpiegitura eraikitze; Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGP) jakinarazi duenez, obrak «lehen baino lehen» hastea aurreikusita dago. Horiek amaitutakoan zabalduko da Ibarbengoa metro-geltokia, Berango eta Getxo artean. Horren lanak orain dela bost urte amaitu zituzten, baina oraindino ez dute zabaldu.

Estalitateko 304 aparkaleku hartuko ditu parkingak. Sustatzaileek azaldu dutenez, «diseinu integratzailea» izango du, «geltokian eta Andra Marin integratuta geratuko da, soslai baxuko diseinuagaz». Hiru solairu edukiko ditu, horietako bi lur azpian egongo dira. Bertara sartu ahal izateko beharrezkoa

izango da trenbidearen trazatutik paralelo joango den eta Ormazako estartagaz lotura izango duen errepedetik joatea. Hori erabiltzeko 70 zentimo ordaindu beharko dituzte gidariek, egun osoan autoa bertan uzteagatik. BGPk azpimarratu duenez, metro-linearen laugarren parkinga izango litzateke Ibarbengoa-

Getxoko Gobernu-taldearen arabera, udalerriko trafikoaren eta aparkatzearen arazoa «arinduko» du parking berriak

koa; Leioakoaren, Etxebarrikoaren eta BECeakoaren ondoren. Emandako datuen arabera, errepedetatik 300.000 ibilgailu kentzea lortu da gaur egungo horiekaz. Horren harira, Getxoko Gobernu-taldeak (EAJ eta PSE-EE) uste du aparkaleku honek «arindu» egingo duela trafikoaren eta aparkatzearen arazoa udalerriko erdigunean: «zerbitzua emango die inguruko auzotarrei, baita Uribe kostakoei ere».

Oposizioak, zalantza ugari

EH Bilduk ez du uste azpiegitura hori getxoztarrentzat beharrezkoa denik, «ez du beteko bere funtzioa,

ezta Andra Mariko auzokideen beharrak aseko ere». Hori dela-eta, Ibarbengoako metro-geltokia zabaltzea eskatu du koalizio abertzaleak, parkinga egin barik.

GUK Getxo taldekoen ustez proiektu hori «astakeria» da, «Andra Mari auzoaren kontrako eraso, alegia». Esleipenaren harira, «diru gutxiagoren truke bere burua eskaintzen duen enpresa bati azpiegitura eraikitze» ardura ematea deitoratu dute GUK-k, «horrek gainkostuak eragiten ditu, Madrileko metroa eraikitzerakoan gertatu zen bezala».

Ciudadanos udal-taldeak ere bere desadostasuna agertu du disuasio-parkingarekiko: «EAJk ohituta gaituen amaierarik ez duten beste proiektu bat da, Romo Kultur Etxea eta Getxo Antzokia legez. Obra faraonikoak dira, ez bakarrik euren handitasunean, baizik eta euren luzapenean. Normala da ezinegona sortzea auzokideen artean».

Erresistentzia, Tosuko landan

Tosu landa izenagaz ezaguna den gunean eraikiko dute aparkalekua, eta hantxe dago proiektu horren kontrako erresistentzia. Horien arabera, parkingaren aurka egoteko «arrazoiak» egon badaude. Hori dela-eta, proiektua geldiarazi guran, erresistentzia-kanpaldi mugagabeari ekin zioten Tosu Betirako taldeko kideek eta hainbat herritarrek, urtarrilaren 12an, egunean. Halaber, aparkalekuaren kontrako manifestazioa egingo dute zapatuan, hilaren 21ean, 12:00etan, Algortako Telletxe plazatik abiatuta.

Euren arabera, proiektua «ekologiaren kontrako» da, «bertoko ortu-proiektu komunitarioa bertan behera geratuko litzatekeelako eta balio handiko lur azpiko akuiferoak suntsituko dituelako». Modu berean, euren iritziz, «faraonikoa» da, «dirutza publi-



Hainbat ortu lantzen dituzte Tosu landan.



Ibarbengoako metro-geltokia itxita dago eraiki zutenetik.



2011ko irailean egin zuten lehenengo kanpaldia Tosun.



Tosu Betirako kideen etxola euritik eta hotzetik babesteko eraiki zuten.

koa gastatuko dutelako eta betikoak baino ez direlako aberastuko proiektu horregaz». Horrez gainera, «proiektu ilegal» dela salatu dute, «ez dutelako egin Ingurumen Eragin Txostena, eta derrigorrezkoa da». Gainera, proiektuan parte hartzeko aukerarik ez dela egon deitoratu dute. Horren guztiaren aurrean, BGPk ez du ezer adierazi gura izan.

Ibarbengoako metro-geltoki «mamua»

Bost urte igaro dira Getxoko Ibarbengoako metro-geltokia eraiki zutenetik. Halere, ez dute zabaldu oraindino, horretarako baldintza nagusia aparkalekua eraikitzea delako, arduradunen arabera. Bestalde, geltokia eraiki bezain laster, Lurralde Zati Planaren kontrako alarmak isiotu ziren, eta etor zitekeenaren kontra egiteko, lau eguneko kanpaldia egin zuten metro-geltokiaren ondoan dagoen Tosu landan. 2011ko irailean 8an ekin zioten kanpaldiari, eta udalerriko eta inguruko 60 bat lagun batu ziren bertan. Erresistentziarako lehenengo ahalegina izan zen hori. Ondoren, herritar horietako askok landa okupatu zuten, ortuan jarduteko, ingurua ezagutzeko eta proiektuaren salaketa publikoa egiteko helburuagaz, besteak beste.

Urteak igaro dira Tosuko lur-eremu hori okupatu eta lantzen hasi zirenetik, eta denbora tarte horretan, askotariko lagunak izan dira bertaratutako direnak euren baratzeak lantzerako, ortu komunitarioetan laguntzerako edo inguru horretan antolatutako hamaika jardueratan parte hartzerako.

Lehenengo kanpaldia egin eta hiru urtera, 2014ko irailean, beste kanpaldi bat antolatu zuen Uribe Kostako Proiektu Txikitzaileen Aurkako Asanbladak, autogestioaz eta proiektu txikitzaileen aur-

kako erresistentziaz gehiago ikasteko gune bezala. Hasiera batean tailer, mahai-inguru, bertso-afari eta kontzertuez osatutako aste biko egitaraua antolatu zuten, eta kanpaldia hainbat astez luzatu zen. Tosu Betirako taldeko kideek azaldu dutenez, «kanpaldi hari esker obren hasiera atzeratzea lortu zen, inguruan egin behar zituzten hainbat desjabetze behin-behinean gelditzea lortu baitzen».

Hurrengo hilabeteetan, aurreko egunetan landan eraikitako etxola negurako «atondur» zuten, bio-eraikuntzarako teknikak erabiliz, proiektu txikitzaileen aurkako borroken topaleku izateko helburuagaz. Aldarrikapen horregaz sortu zuten Tosu Betirako taldea, «hemen gaudela, parkingaren kontra gaudela

Zenbait auzokideren ustez, aparkalekuaren helburua bestelakoa da: Getxo edo Andra Mari urbanizatzea

eta gauzak beste modu batean egin daitezkeela esateko. Horren guztiaren aldarria da Tosu Betirako», azaldu dute taldeko kideek. Izan ere, inguru horretan aurreikusitako proiektua ez da bakarrik aparkaleku bat euren ustez: «Horren atzean proiektu handiago bat dago, nolabait azpijoko urbanistiko bat dagoelakoan gaude».

Hori guztia dela-eta, aparkalekua eraikitzeko lanak hastear daudela, hirugarren kanpaldiari ekin zioten joan den egunean, urtarrilaren 12an. «Oraingo honetan kanpaldia mugagabea izango da. Jakin dezatela ez garela hemendik gure borronteaz joan-

go, bota beharko gaituztela», nabarmendu dute landan kanpatuta dauden kideek; «desobedientzia zibila zilegi dela uste dugu, proiektua bidezkoa ez delako», gaineratu dute. Horren harira, EH Bildu eta GUK udal-taldeek euren babesa adierazi diote kanpaldi mugagabe horri. Koalizio abertzaleak bat egin du Tosu Betirako taldeak proposatutako ekimenagaz, «erabat zilegi delako aurrera eramaten dabil-tzan borroka». GUK Getxok ere bat egin du dinamikagaz, eta horretan parte hartzeko deia egin die herritar denei.

Aparkalekua, bai ala ez?

Hastear dauden obrek aspaldiko mamuak bueltan ekarri dituzte askoren iritziz. Izan ere, 2007an EAJ buru zuen Gobernu-taldeak Andra Mari inguruan 8.000 etxebizitza eraikitzeko proiektua aurkeztu zuen. Horrek azkenean ez zuen aurrera egin, herritarren aurkakotasuna eta krisi ekonomikoak bertan behera uztea ekarri baitzuen. Halere, zenbait auzokidek uste dute aparkalekuaren gaur egungo obrek bestelako helburua dutela: Getxoko edo Andra Mari auzoko berdegunea urbanizatzea.

Tosu Betirako kideen ustez jende asko dago horren guztiaren kontra. Hori dela-eta, ziur daude auzokideen indarraldi hori beharrezkoa dela proiektuari aurre egiteko: «Gutxi batzuen artean ez dugu proiektua geldituko, baina denon artean, konpromiso minimoak hartuta, lortzeko itzaropena dugu». Hala, udalerrian aparkalekuaren existentziaren beharraz eztabaida piztu, eta horren kontrakotasuna ikustarazteko guran, manifestaziora deitu dute: zapatu honetan izango da, urtarrilaren 21ean, 12:00etan, Algortako Telletxe plazatik abiatuta. ◀

Gorliz, 1978

Lehen/Orain



Lemoizko zentralaren kontrako martxa pasatu zenekoa. © GARIKOITZ ESTORNÉS ZUBIZARRETA

Uribitakora

Kristal lausoa

TESTUA

Josu Landeta Egurrola

DOINUA

ETAren su-etenetik

ARGAZKIA

Hodei Torres

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, ALBEko kideek jarritako bertso eta guzti: hiruka@hiruka.eus

Horra aurreko kristala lurrunez beterik lauso, ur-tanten kaos basoan nahasgarria dogu oso. Atzo giro ederrean gengoan lar amoroso, gaur aroak, tantak legez, bihurtu gaitu drogoso. Ezin leike egon gustura ezin leike egon gozo begiratze hutsa bere bihurtu jaku arazo, pozaren landa genduna gaur da malkoen itsaso.

Munduko giro usteleko jokabide maltzur motzak hits eta bortitz dakarskuz euriak eta izotzak. Gure artean bere zakar dabiltz aginte zorrotzak, inon ez dira ageri eguzkipeko pagotzak. Hierarkia antzu horretan batzuk gara pizti arrotzak, baina hiltzen ez bagaitu bazterkeriaren hotzak laster dantzari datozke geroko doinuen hotsak.

Ego ustelen sasoiari nahastu danean jendea, maitasuna eta umorea geunke aukera hobea. Argiaren promesagaz hurbil dogu goizaldea, distiratsu ikusten da tanta eta lurrun oldea. Izpi jantzi baikor batek uxatu dau ilunbea, garden eta alai ikusi ahalko da kanpo-aldea; zerumugatik mundura dator eguzki amandrea.



Erakunde laguntzaileak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua